

Oñatiko I. Gazte Eguna

Hamabi taldek egin zuten kontzertua

KULTURA, 22-23



Bouazza El Mastati garaile Torreauson

Sekula baino parte-hartzaile gehiago izan zituen krosak; 111, hain justu

KIROLA, 14-15

Aitor Mendizabal

Txapeldunorde ETB-Kantxan

KIROLA, 19



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko uztailaren 4a • 2. urtea • 64. zenbakia • 0,90 euro

Elgetako 25. azoka sekula baino handiagoa izan da

Eskoriatzan San Pedroak, Elgetan Feria Nagusia eta Aramaion San Martin jaiak ospatu dituzte

ARAMAION GAUR ERE BAI
Pirritx eta Porrotx pailazoak, herri afaria eta mojito festa dira gaurko ekitaldi nagusiak

ELGETA ETA ESKORIATZA
Bukatu dituzte jaiak. Elgetan atzo, inoiz baino Feria Nagusi handiagoa egin zuten

ERROMERIAK
Bergaran San Martzial eta Arrasaten Errozia ospatu zituzten atzo

Jairik jai ibili nahi izan duenak aukera ezin hobea izan du asteburuan urrutira joan gabe. Eskoriatzan, Elgetan eta Aramaion jai nagusiak ospatu dituzte. Aramaion, gainera, gaur egingo dute azken txanpa.

Laster, antzuolarrek hartuko dute lekukoa; uztailaren 14an hasiko dira jaiak. **2-9**



Elgetan sekulako arrakasta izan zuen asto karrerak. Ainhoa Arantzeta lehena izan zen; Mikel Beretxinaga, bigarrena.

ELKARRIZKETA



JESUS CATANIA |
MCC-REN KONTSEILU
OROKORREKO
LEHENDAKARIA

“Erregea gonbidatzea erabakia ekonomiko-empresariala izan zen”

“Internet bidezko erasoak erantzutea oso zaila da”

“Txina mendebaldeko ekonomiarendako arazo izango da”

GEUREAN, 2-3

IV. Aramaioko Uda Ikastaroa gaur hasiko da

‘Euskal Herria, 1789-1848, historia, hizkuntza, artea’ da izenburua **9**

Goiena.net-ek aipamen berezia jaso du Rikardo Arregi sarrietan **10**

Ford**Focus** berria. **Kalitatea** bete-betean.



MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Gozatzeko pentsatuak,
irauteko eginak



SPORTLAND ARRASATE,
Garibai Etorbidea. 2-6.



KIROLA ZEURE ESKURA

GEUREAN

- 25.550 metro egin zituzten igeri Arrasaten Busti Zaitetz kanpainarekin bat eginez | 10
- Oñatiko Natura Eskolak balio natural eta kulturala ezagutzera emateko ibilbideak antolatu ditu | 10

Mundumira
jaialdiko autobus
zerbitzua
baloratuko dute
gaur Arrasaten | 9

Berba jario handia du, baina ulertzeko erraza, lagunartekoa. Gainera, elokuentea da eta ekonomiaz aritzeko hitzordua egin arren, elkarrizketa atsegina eta

entretienigarria egiten badaki. Nafar honek hiru urte eta erdi egin ditu dagoeneko MCCko arduradun nagusi legez. Uztailaren leian hiru urte eta erdi bete zituen MCCren

Kontseilu Orokorreko presidente eta 37 Coprecin beharrean hasi zela; "gaurkoa baino -egubakoitza- egun askoz ere beroagoa zela daukat gogoan".

JESUS CATANIA | MCC-REN KONTSEILU OROKORREKO LEHENDAKARIA

"ETArekin lotzen gaituzten mezuak erabili dituzte gure lehiakide batzuek"

Marijo Deogracias

MCCk argitaratu dituen azkeneko datuen arabera, 2004ko urtearen amaieran 72.000 langile ari ziren Taldean lanean. Horietako zenbat EAEn?

Taldeko %49 ari dira EAEn, Espainiar estatuan %39. Gertatzen den %12 atzerrian ari dira. **2008rako 25.000 lanpostu berri sortzea aurreikusi duzue, baina kopuru handiena kanpoan.**

Bai eta ez. Plan estrategikoa aztertzen aritu ginenean hemen lanpostuak sortzeko aukera dagoen ere aztertu genuen eta ziur gaude sortuko ditugula; agian ez hainbeste, baina kualifikatuak izango dira. Garaia proiektuan goi mailako 1.200 lanpostu sortuko ditugu. Garrantzitsua da lanpostu horiek sortzea; lan merkatu sartzan diren langile berriak unibertsitatean hazitakoak dira; hori da etorkizuna. **MCCren eskulan zuzena atzerriko lantegietan egongo da?**

Argi dagoena da ezin dugula beste herrialde horiek dituzten baldintza ekonomikoekin lehiatu. Baina horrek ez nau arduratzen. Gure erronka da, hain justu, lanpostu kualifikatuak sortzea. Horretan indar berezia

egiten ari gara unibertsitatearekin eta berrikuntza eta garapeneko zentroekin.

Kooperatibari globalizazioak planteatzen dizkion erronketaz aritu zarete jardunaldietan joan zen astean. Nolakoa da etorkizuna?

Zaila, betiko moduan. Aldaketak beti izaten dira zailak eta orain, agian, zailagoak (petrolioaren gorabeherak, euroaren eta dollarraren paritatearen ondorioak esportazioetan...). Hala ere, sei erronka nagusi aipatuko nituzke. Batetik Internet. Enpresa arloan oraindik ez da erabat garatu. Belaunaldi aldaketa gertatu beharko da enpresa munduko hartu-emanetan aldaketa sakona suposatu dezan. Bigarrenik, globalizazioa lehiakideen hazkundera dela esango nuke. Eta horri aurre egiteko teknologiaz baliatu behar gara; horregatik bultzatzen dugu nazioartekotasuna. Hirugarrenik, aldaketa demografikoak hartu behar ditugu kontuan. Geroz eta denbora gehiago egiten du jendeak ikasten eta lanean beranduago hasten da. Gainera, ez dira bizitza guztian lanean arituko eta bestelako ekintzak garatzen direnez, horretara bideratutako aktibitate ekonomikoak ere sortzen

dira. Laugarren faktore bat, aurrekoarekin lotuta, ekologia litzateke. Arlo horretan aktibitate gehiago sortzen ari dira eta sortuko dira. Bosgarrenez, Ekialdeko herrialdeen faktorea dago. Han kostuak baxuagoak dira eta marka handiekin aurkeztzen dizkigute gure merkatuetan. Hori ere lehiatu beharreko faktorea izango da. Azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, Txinaren fenomeno dago. Horrek aldaketa nabarmena eragingo du globalizazioan.

Hortaz, balio erantsiko enpresa gehiago behar ditugu. Talde Korporatiboaren oihal industrialia 20 urte barru erabat desberdina izango da. Aktore aktibo legez jardun behar dugu; ezin dugu Ezkerraldearekin gertatu zitzaigun moduan begira egon.

Txinaren beldur izan behar gara?

Oso ezezaguna da. Hasteko, hizkuntzaren arazoa daukagu. Bestetik, banaketa sareak oso konplikatua dira. Hala ere, hainbat gauza saltzen ditugu han eta hara joaten gara eurekin hango baldintzetan lehiatzera; hemendik ezingo dugulako lehiatu. Txina mendebaldeko ekonomia guztiarentzako arazo izango da. Munduko etxeko tresna txikiak %80 produzitzen du. Orain dela 8-10 urte ez zuen mikrouhin-laberik egiten; gaur egun munduko produkzioaren erdia egiten du.

Zer egin behar da hortaz lehiakorrak izaten jarraitzeko?

Etorkizunean galduko diren lanpostuak orekatzeko aktibitate berriak sortu behar dira eta guk lau berri jarri ditugu martxan. Energia berriztatzaileak, telekomunikaziorako osagai elektronikoak, aeronautika (osagaiak eginez) eta osasuna (3. adinekoen egoitzak gestionatzeko eta dituzten beharrei erantzuteko makinak egiteko).

MCCren gaur egungo lan jarduna ordetzatuko dute?

"Gure erronka lanpostu kualifikatuak sortzea da eta horretan ari gara"

"Taldearen oihal industrialia 20 urte barru erabat desberdina izango da"

"Globalizazioa lehiakideen hazkundera da; teknologiarekin egin behar aurre"

"Txina mendebaldeko ekonomia guztiarentzako arazo izango da"



Egubakoitzean amaitu ziren Globalizazioaren gaineko jardunaldiak Oñatin eta

Etorkizunean bai. Orain dela hogeitau urte, esaterako, gas-sukaldeak egiten genituen Arrasaten; gaur egun indukzio plakak egiten ditugu. Laster lisatzailelehorgailua merkaturako dugu. **MCCren sortzaileek elkartasunaren baloreak lantokietan zabalitzeagatik Vatikanoren saria jaso zuten. Bizirik diraute baloreek? Behar ginek sinisten dituzte?**

Nire ustez bai. Egia dena da lanera sartzan diren langile berriak ez direla gu hasi ginenekoak eta orduan sartu ginenok ere ez ditugula orduko sinismenak, eboluzionatu egin dugu. Eguneratu egin dira, baina kri-

sialdietan igartzen da indarrean daudela. Baliteke jabego sentimendua kooperatiba handietan zailagoa izatea, baina barrubarruan jendeak badaki non ari den. Jendea ez da Taldetik joaten, ezta zuzendaritzan ari direnak ere. Hala ere, dudak egotea eztabaida sortzeko ona da eta horretaz aritzea ere positiboa da. **ETArekin lotzen zaituzteten erasoiei erantzutea erabaki duzue zuen webgunearen bitartez; gainera gaztelaniazko bertsioan. Zergatik horrela eta zergatik orain?**

Ingelesez eta frantsesez ez egitea logikoa da, hemen gertatzen denaren berri ez dutelako.

"Galduko diren lanpostuak orekatzeko aktibitate berriak sortu behar dira"

"Argi dagoena da Espainiako merkatuan salmentak igo egin direla"

"Jabego sentimendua kooperatiba handietan zailagoa izaten da"

"Erregea gonbidatzea erabaki ekonomiko-enpresariala izan zen"

"Internet bidezko eraso horiek erantzutea oso zaila da, anonimoak dira"

"Merkatu horri esker bizi gara. Bezeroengandik kobratzen dugu. Ez dezagun ahaztu"

Egon daitezkeen kanpainen berri dutenei zuzendutako erantzuna da eta horiek, gehienak, Espainian daude. Eta zergatik orain? Lehenago ezin izan dugulako egin. Internet bidezko eraso horiek erantzutea oso zaila da, anonimoak dira eta epailearen aurrera joz gero kasua atzera botatzen du noren kontra jo ez duelako; eta kontuan hartu ezin den auzi batek sortu ditzakeen dudak handiegiak ziren. Orain dagoen kanpainatako batek izen-abizenak ditu eta horren kontra jo dugu. Tertulia batzutan ere sekulakoak esan izan dira, baina gure aholkulari juridikoez ez dute bilatu nola jo horien kontra, hirugarren baten ahotan esaten dituztelako. Batzuen kontrako salaketa egiteko gogoz askotan geratu gara. Ez dago eskubiderik egiten ari direna egiteko.

Nola eragin dizuete erasoek?

Uste dugu ez digutela eragin. Oso zaila da neurtzen. Ez dakigu zenbatekoa den Interneten zabal-kundea eta erosteari lagatzen dionak ez dizu zergatik egiten duen esaten. Hala ere, jende asko dago mezu partikularrak bidaltzen dizkigutenak gai horretaz galdetzen. Banakako azalpenak ematen dizkiegu eta eskerrak ematen dizkigute jasotako azalpenagatik. Baina zoritxarrez oso gutxi dira zerbait esaten idazten digutenak. Gehiago izatea nahiko genuke ze, gu garena gara eta erakutsi egin dezakegu. Bestalde, argi dagoen bakarra da Espainiako merkatuan salmentak igo egin direla. Dena dela, aitortu behar dut min handia egin digula gure lehiakide batzuek gure kontrako mezu horiek gure bezeroen artean zabaltu egin dituztela eta hori etikoki salagarria da.

Erregearen bisita Arrasatera ere kritikatu zizueten. Zergatik gonbidatu zenuten?

Hasteko, gu apolitikoak gara. Batzuk politizatu egin nahi izan zuten, baina erabaki guztiz ekonomiko-enpresariala izan zen. Fagor etxeke tresnertzako inaugurazio oso garrantzitsua zen eta haien merkaturik handiena

Espainiar estatua da. Garaia poloaren inaugurazioa ere izan zen eta gogoratu beharra dago laguntza publiko asko eskatu direla hori egiteko.

Hori guztia kontuan hartuta, egokia iruditu zitzaigun Espainiako aginte nagusia dena gonbidatzea. Beste edozein enpresak zerbait inauguratzen duenean, hedabide ahalik eta gehienetan agertzea nahi izaten du eta horretarako mandatari nagusia gonbidatzen dute. Gure kasuan, zerbizatzen dugun merkatu horretako mandatari nagusia erregea izanik, bera gonbidatzea egoki ikusi genuen. Gainera, gure ustez erregeak ez dauka esangura politiko bat, gobernu bateko presidentea batek legez. Lastima da testuingurutik kanpo atera nahi izana irudiari begira egindako ekintza hori. Merkatu horri esker bizi gara, ez dezagun ahaztu hori. Bezeroengandik kobratzen dugu kooperatiban eta hori ez dugu ahaztu behar.

Hiru urte eta erdi MCCren lehendakari, ze balorazio egiten duzu?

Ondo joan dela esango nuke. Taldearen berrantolaketaren proiektuan aritu gara, proiektu oso konplexua; berrikuntza bultzatzen ari gara; zuzendarien gestioan lan handia egiten ari gara, Otorlari marko eta eduki handiago emateko; kooperatibaren baloreen indarraldia berrikusten ari gara; gure filialetako langileen integrazioan ari gara...

37 urte Coprecin hasi zirela. Nola aldatu da Debagoiena?

Hirigintza-garapena oso txarra izan da. Goi mailako kualifikazioko lanpostuak sortzeaz ari garenean arazoa da gaur egungo egoera errepikatuko dela: lanean Arrasaten, baina kanpoan bizi izatea. Espekulazioak eragina akats larria egin dugu: herriak hiri bihurtu nahi izan ditugu. Hainbeste mendirekin ez zegoela aukerarik, baina Suitzan konpondu egin zuten; jakina, han ez zuten hainbesteko espekulaziorik egingo. Arrasatek Eibar imitatu nahi izan du eta Eibarrek, berriz, Bilbo.

"Espekulazioak eraginda akats larria egin dugu: herriak hiri bihurtu nahi izan ditugu"

"Hirigintza-garapena oso txarra izan da. Arrasatek Eibar imitatu du"



MARIJO DEGRACIAS

han izan ginen Jesus Cataniarekin hizketan.



BEGIETAKO KLINIKA

Begietako mikrokirurgia:

Kataratak: Miopia / Hipermetropia.

Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatu

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

JAIK | LAU EGUNEZ FESTA NAGUSI IZAN DA ELGETAN

Inoizko Feria Nagusi handiena egin dute aurten Elgetan

30 artisau, 30 janari postu eta 130 azienda egon ziren ikusgai atzo, domeka, Elgetako Azoka Nagusian

Eguenetik domekara bitarte jan, edan eta parranda egin dute elgetarrek herriko jaietan

Larraitz Zeberio

Biharamuna dute gaur, astelehena, Elgetan. Urtero legez jana eta edana izan da nagusi herrian eguenetik domekara bitarte eta atzo, domeka, egindako Azoka Nagusiaren ondotik erretiratu dira etxera elgetarrak.

“Giro bikaina izan dugu herrian”, azaldu digu Elgetako alkate Patxi Basaurik. Asto lasterketaren arrakasta nabarmendu digu alkateak. “Ikusgarria da hiru astotxorekin egindako lasterketa zenbat jende erakartzen duen. Zerbait egin behar dugu lasterketa hau nolabait bultzatzeko”. Alkateak, bestalde, plazako dantzaldien arrakasta urria nabarmendu zigun. “Jendeak nahiago du tabernetan egon eta lastima da plaza hutsik ikustea”.

25 URTE FERIA NAGUSIA BERRESKURATU DENETIK


Atzo, domeka, egin zen Elgetako Feria Nagusia. Inoiz baino azoka dotoreagoa egin da aurten. “Duela 25 urte hasi ginen azoka berriz antolatzen”, gogoratu digu alkateak. “Inoiz baino postu eta ganadu gehiago ekarri nahi izan ditugu aurten eta idiekin egin

dugu ahalegin handiena”. Berraondokoan egon ziren ikusgai aziendak. Guztira, 130 bat buru, tartean 21 idi pare.

Elgetar abeltzainik ere egon zen azokan. Hala nola, Merche Elorriaga, Josu Arantzabal, Roberto Basauri, Javier Errasti eta Jose Agustin Beretxinaga. Azienda ederrenak ekarri zituzten plazara. Herriko plazako postuen artean, bestalde, Pilar Arinen eskulturak eta Altubeko ogia aurkitu genituen. “Artisau postuak ere gehiago daude aurten”, esan zigun alkateak.

Elgetako bost abeltzainen aziendak egon ziren ikusgai azokan

Patxi Basauri alkateak asto lasterketa bultzatzeko asmoa duela jakinarazi du



Berraondokoan egon ziren ikusgai 130 azienda inguru. Behi gorriak, astoak, behorak eta idiak ziren gehien bat.

PARRANDA NAGUSI

Erdi Aroa zen Udalak eguenean mozorrotzeko emandako gaia, baina jende gutxi jantzi zuen mozorroa Elgetan. Eguraldi petralak, agian, ez zuen lagundu.

Jaiek, ordea, protagonista asko eman dituzte. Ainhoa Aran-

tzeta nagusitu zen asto lasterketan. Zapatuko herri bazkarian, Gaizka Bolinagak apaldu zituen mangera handi batekin herritar guztien berotasunak eta soka muturreko hirugarren bigantxak bat baino gehiago larritu zuen itxituratik hanka egin zuenean.

Bolo Txapelketan, berriz, emakume bat nagusitu da aurten, Amaia Iturbe. Sardina-janarekin agurtu zituzten jaiak Elgetan. Plaza barrenean erre zituzten. Ez dakigu Juan Mari Sarasua, Jefia, sardina-ehorzketa egitera animatu ote zen.

Barikuan jubilatuen eguna egin zen Elgetan. Espaloian 120 lagun elkartu ziren bazkaltzeko

Sasoi onean daude Elgetako jubilatuek. 120 lagun elkartu ziren Espaloian prestatutako bazkaria. Aurretik, meza eta bertsolariak entzun zituzten eta 14:00ak aldera elkartu ziren Espaloian dotore bazkaltzeko. Giro onean egin zuten otordua, eta gero dantzan eta kantuan aritu ziren. Bazkaldoan jokatzen zuten Jubilatuen Bolo Txapelketara, ordea, inor gutxi gerturatu zen. Zapatuan jokatutako Elgetako Bolo Txapelketa Nagusian eman zen Jubilatuen Saria. Sebastian Arantzabalek jaso zuen.

Zapatuan asto lasterketa, herri bazkaria eta koadrilen arteko jokoak egin ziren

Hiru lehiakidek hartu dute aurten parte asto lasterketan. Ainhoa Arantzeta nagusitu zen helmugan Lapurdi baserriko Fakunda astoarekin batera. Mikel Beretxinaga gainean izan zuen lasterketa osoan. Hirugarren parte-hartzailea, Oier Billa, astoa gobernatu ezinik ibili zen. Koadrila arteko jokoetan, ordea, zorte gehiago izan zuen Oierrek eta garaipena lortu zuen Faka Faka taldearekin batera. Tartean, paella ederra dastatu zuten plazan elgetarrek. 400 pertsonendako egindako paella hain zuzen ere.

Domekan, inoiz baino Feria Nagusi ederragoa egin zen 60 postu eta 130 ganadu bururekin

Erremintak, artisauak, nekazaritza ekologikoa, etxeko produktuak... Herriko plazan, plaza barrenean eta San Roke kalean jarri zituzten domekan 60 postutik gora. Aziendak Berraondokoan egon ziren ikusgai. “Duela 25 urte berreskuratu genuen Elgetako azoka eta orduz geroztik asko handitu da urteroko hitzordu hau”, esan digu Patxi Basauri alkateak. Jakin dugunez, bazkaria egin zuten Ostatu jatetxean hasierako urte haietan azoka berreskuratzeko lanean jardun zuten lagun guztiek.

FERIA NAGUSIKO JAIAK ELGETAN



Mozorro-tuta eman zieten hasiera Elgetan herriko jaiei. Eguen gauean denetarik ikusteko aukera izan zen.



Umeendako puzgarriak, jokoak eta zezen mekanikoa egon ziren, besteak beste.



Zapatuan 45 kilo arroz erabili ziren paella egiteko. Ezer gutxi gelditu zen.



Presoak eta Ane Miren herritarra gogoan izan zituzten.



Asto lasterketan lehia handia izan zen.




Gaztetxe inguruan ere giro polita sortu zen. Barikuan eta zapatuan goizalderaino rock kontzertuak egin ziren.

• ELGETARREK GUSTURA IGARO DITUZTE AURTEN ERE HERRIKO JAIAK



IMANOL, AMAIA, ARLINDO, SEBAS, SEBASTIAN, KARMELO ETA FERMIN | SARITUAK

Elgetako Bolo Txapelketa Nagusiko sarituak dira. Zapatu gauean jokatu zen 30 parte-hartzaile izan zituen txapelketa. Arrasateko Ikutixo baserriko Amaia Iturbe nagusitu da aurtten. Pozaren pozez zegoen amaitutakoan. "Bi emakume animatu gara aurtten eta ondo aritu gara biok ere".



MIKEL, OIER ETA AINHOA | ASTO LASTERKETAKO PARTE-HARTZAILEAK

Oier zen eskarmentu handienekoa, baina gazte-ek aurre hartu diote aurtengoan. Ainhoa nagusitu zen helmugan lasterketa osoa Mikelen parean egin ostean. "Lehen aldia nuen asto gainean. Pozik nago baina hankartea minberatuta daukat". Pozik jaso zituzten 100 eta 60 euroko sariak.



ROBERTO BASAURI | ABELTZAINA

"Urtero etortzen naiz azokara eta aurtengo handia da benetan. Salmenta batzuk egiten dira jende asko etortzen delako".



GAIZKA, OIER, ETOR ETA IBAN | FAKA FAKA TALDEKOAK

Koadrilen arteko jokoetan nagusitu ziren. Bost talde aritu ziren eta lehiakortasun handia egon zen. Publikoak ere gertutik jarraitu zituen puntuaketak. "Iruzurgile asko dago herri honetan", esan zigun Oierrek. "Tranpak eginda ere ezin izan digute irabazi ordea".

SAN MARTIN JAIK ARAMAION



AINTZANE AGIRRE

Mari, lamiak... pertsonaia mitologikoak izan ziren haurrek egindako antzezlan baten oinarria. Jasotako txalo zaparrada plazatik ere entzun zen ia-ia.

JAIK | PIRITX ETA PORROTX PAILAZOAK ERE IZANGO DIRA 18:30EAN, PLAZAN

Afariarekin eta mojito festarekin agurtuko dituzte gaur San Martinak

Giro alaia egon den arren antolatzaileek diote jende kopuruak behera egin duela aurten

Urtetik urtera egitaraua hobetzen joateko herritarren iradokizunak jaso nahi ditu Gazte Asanbladak

Monika Belastegi

Ez da ohikoa, baina Aramaion, behintzat, halaxe izaten da: Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak (ATGA) antolatu ditu aurten ere jaiak; herriko gazteek, azken batean. Egitaraua prestatzeko orduan herritar guztiak hartzen dituzte kontuan eta euren nahia izaten da ahalik eta jende gehienarengana iristea. Hori horrela, herritarren iradokizu-

nak, kexuak... jaso nahi dituzte "urtetik urtera egitaraua eta jaiak hobetzen joateko", ATGA-ko Naiak azaldu digun moduan. Horretarako, buzoia jarri dute kultura etxean.

ANTZEZLE IZUGARRIAK

Egubakoitzean hasi zituzten San Martinak eta gaur, astelehena, bukatuko dira. Asteburuaren errepasoa egiterakoan, ez da jende gehiegi ibili, baina giroa apar-

ta izan da. Bestalde, nabarmentzekoa da herritarrek eurek egindako hainbat ekitaldik osatu dutela egitaraua. Horren adibide dira, esaterako, zapatu arratsaldean izan zituzten Txirritolinpiadak eta umeek egindako antzezlanak.

Txirritolinpiadei dagokienez, hauek izan ziren irazbaleak (albo orriko irudian agertzen dira): gazteetan, Mikel Mendikutek, Bingen Bengoak eta Xabi Igoak jaso zuten lehen saria eta bigarrena, Manex Arriolabengoak, Iker Arriolabengoak eta Eukén Ugartek. Nagusietan, berriz, lehen saria eraman zuten Julen Robledok, Ibai Ormaetxeak eta Andoni Elejaldek; bigarrena, Julen Ibabek, Jokin Balanzategik eta Ander Floresek eta hirugarrena, Ekaitz Abarrategik, Igor Abarrategik eta Iban Astolak.

Zapatuko ekitaldirik xarmangarriena, berriz, herriko gazte-
txoek antzeztutako antzerki lanak

izan ziren. Ikustekoa zer nolako lan polita egin zuten antzezle guztiek! Guraso eta laguntxoek egindako txaloak plazatik entzuteko modukoak izan ziren, eta nola ez, gurasoak adurra ezin eutsi.

Gaur bukatuko dira jaiak Pirritx eta Porrotx pailazoekin eta mojito festarekin.

Herriko haurrek aktore izugarriak direla erakutsi zuten zapatuan

Pirritx eta Porrotx, herri afaria eta mojito festa izango dira gaurko ekitaldi nagusiak

Egitaraua

ASTELEHENA 4

- **11:30:** Umendako jolasak, parkean.
- **12:00:** Meza.
- **17:00:** Gaztetxoendako Poko Piko berbena.
- **17:30:** Koadrilen arteko pikea, parkean. Gero, Lapernen Orroa txaranga.
- **18:30:** Pirritx eta Porrotx, plazan.
- **19:30:** Papargorri Abesbatza eta Arrasate Musikalen kontzertua, kultura etxean.
- **21:30:** Herri afaria, plazan.
- **22:30:** Kaixo, plazan.
- **01:00:** Mojito jaia eta DJa txoznetan.
- **04:00:** Gantzontzilo, kulero eta tanga lasterketa.

SAN MARTIN JAIAK ARAMAION



Irudian zapatu arratsaldean jokaturako Txirritolinpiadetan irabazle atera zirenak.



Txoznetako kontzertuetan jende asko batu zen.



Sagardo kupelek ez zuten arrakasta handiegirik izan.



Umeak domeka ailegatzeko desiratzen zeuden jolas lekuan aritzeko.



Rock kontzertuek jende asko erakarri zuten.

• UMEAK ETA NAGUSIAK, GUZTIAK POZIK JAIETAN



MIREN, MAIDER, MAIALEN, JONE, ANE, NAROA, IKER, EKAIN, ASIER, ANDER ETA ASIER | ARAMAIO

“Oso ondo gabiltza”, esan zigun koadrila handi honek zapatu arratsaldean. “Atzo gauean parranda egin genuen eta punk kontzertuan izan ginen; izan erre, hori da guk gustukoaren dugun musika. Pop-a ez zaigu gustatzen”. Txirritolinpiadak ikusten ere izan ziren eta oraindik parte hartzeko gazteegiak direnez, penaz zeuden. Jai egitarautik ia guztiarekin konforme dira, baina aitortu zuten, pailazoak eta magoak ez zaizkiela gustatzen.



NERIAN, UNAI ETA AGUS | ARAMAIO

Tabernan lan egitea egokitu zaie jaietan, baina, ondo daramate “batzuetan halaxe izaten da...”. Giroari dagokionez, “aurten ez dabil hainbeste jende”, esan zuten, “baina oraindik geratzen dira egunak eta itxaron egin beharko dugu”. Gehien zerbitzatzen dituzten edarriei dagokienez, “garagardoa eta konbinauak” direla esan zuten.



IZAR, EVA ETA RAKEL | ARAMAIO

“Oraingoz oso ondo doaz jaiak; musika entzun dugu, paseatu, dantza egin...”. Izan ere, musika eta dantzaldiak dira jaietatik gehien gustatzen zaiena: Imuntzo eta Belokiren eta Gau Alai taldearen emaldiak nabarmendu zituzten. Gainera, jai egitaraua dagoen bezala ondo dagoela uste dute eta ez liokete ezer gehituko.

SAN PEDRO JAIKAK ESKORIATZAN

JAIKAK | INONGO ARAZO BARIK HASI ETA BUKATU DIRA JAIKAK, ETA EGURALDIA ERE LAGUN IZAN DUTE

Parte-hartzea eta giro alaiak izan dira San Pedro jaietako adierazgarri

Bukatu dira San Pedro jaiak eskoriatzarrendako. Antolatzaileak pozik azaldu dira eta jaien gaineko balorazio positiboa egin dute

M.B.

Pozik azaldu da Maider Otamendi Eskoriatzako Udaleko Kultura zinegotzia San Pedro jaien balorazioa egiterako orduan: "Giro oso ona egon dela eta herritarren

parte-hartze handia azpimarratuko nituzke" esan digu. Horren adibide, hainbat ekitaldi nabarmendu ditu: "Kaukasoko Dantza Konpainiaren emanaldia ikusten jende asko egon zen, esaterako; baita Ttakunpa taldearen

dantzaldian ere. Horrez gain, egubakoitza ere egun oso polita izan zen. Euskal jaia egiten dugu egun horretan, eta herri bazkarirako, 375 bat lagun batu ginen. Horrekin batera, Tapia eta Leturiaren emanaldia tradizio bihurtu da honezkerok gurean, eta jende gazte asko aritu zen dantzan plazan".

EGITARAU ALTERNATIBOIA

Udalak egindako jai egitarauarekin batera, gazte batzarrak eta presoen aldeko taldeak antolatutako egitarauaz ere gozatu ahal

izan dute Eskoriatzara hurbildu direnek. Are gehiago, jaiak egun bat luzatu dituzte, hau da, zapatuta arte, astean barrena lan egin behar izan dutenengan pentsatuz, euren esanetan.

Egitarau alternatiboa osatu duten taldeko kideak ere pozik daude: "Jende multzo polita ibili da herrian. Antolatu ditugun ekintzetan ere parte-hartzea handia izan da, ez bakarrik musika kontzertuetan, gainerakoetan ere bai. Horrexegatik, eskerrak eman nahi dizkiegu herritarrei, eta

baita barkamena eskatu ere bertan behera geratu diren futbolin eta pilota txapelketengatik".

Bestalde, ekitaldiren bat azpimarratzekotan, play back txapelketa nabarmendu dute. Lehenengo antolatu dute, baina izandako arrakasta ikusita, datorren urtean Gaztetxe II. Play Back lehiaketa egingo dutela aurreratu digute. Aurtengoan Ibaiki eta Ioritzek osatutako bikoteak irabazi du *Desmascaradasekin*. Entzuleek erabaki zituzten irabazleok txaloen bidez.



Martitzen gauean, nagusien danbor hotsak izan ziren nagusi.



Gauko dantzaldietan jo eta su ibili dira, batzuk behintzat.



Txikienek libxagileak omendu zituzten danborradan.



Egubakoitzeko euskal jaietan ezin txotx egin gabe geratu...



... ezta talorik jan gabe ere.



Umeek ez dute aspertzeko aukerarik izan.



Trikitariekin doinurik ez da falta izan kalean.



Preso eta errefuxiatuak ere gogoan izan dituzte.



Zu ez, bestiak taldeak irabazi zuen zapatuan jokoetan.

Bi mila pertsonatik gora elkartu ziren atzo Bergaran San Martzialgo erromerian

Bero handia egin arren jende mordoa igo zen. San Martzial ermita inguruko zuhaitzen gerizpea oso gutiziatua izan zen

Larraitx Zeberio

Iaz baino jende gehiago igo da aurten San Martzialgo erromeriara. Atzo, domeka, egin zuten urteroko hitzordua bergararrek San Martzialgo ermitaren inguruan eta giro bikaina egon zen goizetik hasi eta iluntzera arte.

Udalak zortzi pertsonendako 240 mahai eman ditu alokairuan aurten. 1.920 eserleku inguru, beraz. San Martzialen, ordea, askoz ere jende gehiago elkartu zen. Bero handia egin arren asko izan ziren egun pasa egiteko plana azken unean egin zutenak.

SOKADANTZA ETA JOKOAK

Eguerdian zuhaitzen gerizpean pilatu ziren bertaratutakoak Xamatx dantza taldearen emaldia ikusteko. Urteroko sokadantza egin zuten hamaika dantzarik, tartean txalo zaparrada handia jaso zuen Jose Luis Larrañaga beteranoak.



AINZANE AGIRRE

Sokadantzako 11 neska aukeratu zituzte publiko artetik.

Herri jolasak egin ziren arratsaldean. Txinga jokoan Bolintxo nagusitu zen gizonezkoen artean eta Nerea emakumezkoetan.

Sokatiran aritzeko sei talde osatu ziren. Mutiletan Gorrioiek irabazi zuten. Nesketan, berriz, A veces bebo mosto izeneko taldeak.

Xamatzen dantza emaldia, bertsoak eta sokadantza egon ziren eguerdian

Behar baino gehiago edanda alai bukatu zuen eguna askok



AINZANE AGIRRE

Arratsaldean izan ziren herri jolasak.



AINZANE AGIRRE

Ermita inguruko zuhaitzen gerizpea oso gutiziatua izan zen.

Milaka errozierok lagundu zioten Errozioko Amari

Andaluziako zortzi probintzien izenean eskaintza bana egin zioten Errozioko Amari atzoko erromerian

Marijo Deogracias

Eguzkia lagun atera zuten Errozioko Ama Birjina goizeko 11:30ean Al Andalus elkartetik. Faralae jantziak, Errozioko Amari kantak eta txaloak egun guztian izan ziren Arrasaten. Aurrena parkean roziero mordoska elkartu zen atzo, "gonbidatu guztiak etorri dira, uste baino askoz ere jende gehiago etorri da", esan ziguten Arrasateko andaluzek.

Lau urterik behin mendira ateratzen dute Errozioko Ama eta horretarako propio jantzen dute

Ama Birjinaren irudia. Atzo artzain jantzita atera zuten Arrasateko Al Andaluseko Errozioko ermandadekoek. Arrasatekoarekin batera Euskal Herriko beste hamalau Andaluziako etxeetako ordezkariak izan ziren Arrasaten, jaira gonbidatuta. Jantzi berezietan gainera, atzo Errozioko Ama idi-gurdi batera igota eraman zuten Santa Teresa elizaino. Rafael Raya ermandadeko Anaia Nagusiak adierazi zigunez, "lehenengoz naiz Anaia Nagusia eta horregatik Errozioko amari aldaketaxo batzuk egin nahi izan dizkiot hamabosgarren aldi hone-

Uste baino jende gehiago animatu zen atzo Errozioko Amari parte hartzerako



M.D.

Iaz baino erromes gehiagok lagundu zuen Errozioko Amaren bidea.

tan. Guretzako jai berezia da eta merezi duen guztia eskaini nahi diegu Errozioko Amari".

Ermandadean 103 anaia batzen dira, guztiak Al Andalus elkarteko kideak. Arrasatekoa, oraingoz, ez da Errozioko ermandade ofizialeko bat, baina "beste ermandade batek gonbita egi-

tea gustatuko litzaiguke", adierazi digu Rayak.

8 ESKAINTZA

Atzoko Errozioko eskaintzaren ohitura berreskuratu zuten: Andaluziako lurralde bakoitzaren izenean Ama Birjinari egiten zaion eskaintza berezia. Sevilla-

ren izenean laranjak, Malagaren izenean limoioindoa, Jaenek oliabak, Huelvak mailukiak, Granadak fruta heldua, Almeriak fruta berdea, Cadizek mahatsak eta Cordobak olio eskaini zioten Errozioko amari; eta, bitartean, ermandadeko kideek bertso bana irakurri zioten.

Esklerosi anizkoitzaren aldeko kanpainak erantzun ona Arrasaten

Antolatzaileek eguerdira arteko datuak bildu zituzten. 41 lagunek 25.550 metroko distantzia egin zuten igerian

Larraitz Zeberio

Busti zaitetz! kanpaina esklerosi anizkoitza duten gaixoen aldeko ekintza berezia da. Atzo, domeka, Arrasateko Musakola igerilekura hurbildu ziren kanpaina honekin bat egin nahi izan zuten arrasatear guztiak.

Kiroldegiko sarreran zituzten zain Toki Argi erretiratuen elkar-teko kide boluntarioak. "Goizeko datuak bildu ditugu", adierazi digu Manu Uriarte boluntarioak. "41 lagun etorri dira igerilekura gurekin bat egitera eta 25.550 metro egin dituzte igerian denen artean. Oso pozik gaude emaitzarekin".

Iaz oso bestelako emaitzak lortu ziren. Egun osoan 30 lagun besterik ez ziren gerturatu uretan murgil egitera eta 5.000 metro besterik ez ziren egin igeri.

SALMENTA ONAK

Kanpainaren helburuak sentsibilizatzea, informatzea eta gaixoei zerbitzu gehiago eskaini ahal izateko dirua biltzea dira.

Arduradunek bihar, astelehena, egingo dute batutako diruaren zenbaketa. Aurreratu digutenez, ordea, pozik egoteko arrazoiak dituzte. "Kamisetak asko saldu ditugu. Pentsa, iazkoak ere eraman dizkigute!" zioen egunaren amaieran Toki Argi elkar-teko Manu Uriartek. "Errehabilitazio zentroa behar dugu. Badago, baina Bilbon, eta Gipuzkoan zabaldu nahi dugu. Hori da gure erronka nagusia".

Boluntario aritu ziren Toki Argi erretiratuen elkarteko 10 kide

"Errehabilitazio zentroa zabaldu behar dugu Gipuzkoan, gure erronka nagusia da"



Igerilariak elkartasuna azaldu zuten, modu sinbolikoan, esklerosi anizkoitza duten gaixoekin.

ARTXIBOA

Parte-hartze handiarekin egin dituzte lehen ibilbideak Oñatiko natura zaleek

M.B.

Zapatuan egin zuten Oñatiko balio natural eta kulturala ezagutzera emateko Natura Eskolak eta Turismo Bulegoak antolatutako ibilbideetako lehenengoa. Orkatzategira abiatu ziren 14 lagun hango hegazti kolonia ikustera. Natura Eskolako adituen gidaritzapean hainbat hegazti ikusi zituzten: sai arre eta zuriak (Gipuzkoako sai gunerik handiena da; 60 bat ale daude) eta belatxingak, esaterako. Domekan, berriz, mendiko larreak eta artzaintza deritzon ibilbidea egin zuten. Abuztuaren 6ra bitartean, beste hainbat egingo dituzte. Izena emateko deitu 943 78 34 53 telefonora.



OÑATIKO NATUR ESKOLA

Saiak eta belatxingak ikusi zituzten zapatuan, besteak beste.

Irteerak

UZTAILAK 9 ETA 31

- Arantzazu erreka eta kobazuloak.

UZTAILAK 10, ABUZTUAK 7

- Uraren ibilbidea.

UZTAILAK 16, ABUZTUAK 13

- Mitologia eta historiaurrea.

UZTAILAK 17, ABUZTUAK 14

- Degurixa.

UZTAILAK 23, ABUZTUAK 6

- Basoa eta ikazkintza.

UZTAILAK 24

- Mendiko larreak eta artzaintza.

UZTAILAK 30

- Araozko auzuneak.

Labur

Aipamen berezia 'Goiena.net'-i

XVII. Rikardo Arregi kazetaritza Sariak banatu ziren zapatuan eta *Goiena.net* webguneak, Joxe Aranzabalek *Sustatu.com*-en egindako lanak eta Beñardo Kortabarria kazetari antzuolarraren lanak aipamen berezia jaso zuten, bakoitzak bere arloan. Azken horrek *Elhuyar* aldizkariako Erraustegiak sutan izeneko dossierrean egindako lana aipatu zuten; euskarazko blogintzaren fenomeno ere aipatu zuten, tartean, *Goiena.net* komunitatea; eta Joxe Aranzabalen lana *sustatu.com* blog kolektiboan bere minbizia- ren berri on-line emateagatik.



MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATI
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045



SEIN
GRUPO TALDEA

Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

Albiste izango da

BERGARA | GAUEZ EGINGO DUTE

Ilatargi Astronomia taldeak irteera egingo du gaur Itxumendira

Ilatargi Astronomia taldeak gertaera bitxi bat ikustera joateko irteera antolatu du gaur gauerako. Kontua da AEBk gaur goizeko 7etan jaurti duten espaziontzi baten zundak 1867an Wilhelm Tempelek aurkitu eta izendatu zuen 9P/Tempel 1 kometaren kontra joko duela eta horixe ikustera joateko hitzordua jarri du. 22:00etan aterako dira Bergarako autobus geralekutik eta 22:30ean Itxumendin elkartuko dira gertakaria ikusteko asmoz. Ilatargi-kideek azaldu dutenez, "sekula ez da horrelakorik egin eta nekeza da zer ikusiko dugun aurreikustea".

ARETXABALETA | EGUAZTENERA BITARTEAN

KMK'05en aldeko futbol txapelketan izena emateko

KMK'05ek koadrilen arteko futbol 8 txapelketa antolatu dute Aretxabaletan. Izena emateko epea zabalik dago eta eguaztenera arte egin daiteke. Horretarako Eskoriatzan Inkernu tabernara, Aretxabaletan Orly, Ezkutu eta Arlutz tabernetara edo Arrasaten Basati eta Irati tabernetara jo eta 15 euro ordaindu behar da taldeki-de bakoitzeko (bazkaria barne). Talde bakoitzak 8-12 lagun artean izan ditzake. KMK'05en aldeko futbol 8 txapelketa uztailaren 16an jokatuko da Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian. 09:30etik 15:00era jokatuko da lehenengo fasea eta 15:30ean bazkaria emango dute kirol etxean. 17:00-19:00 artean finala jokatuko da eta sari banaketa 19:30ean izango da.

ARRASATE | GAUR EGINGO DUTE BALORAZIOA

Mundumira jaialdiko autobus zerbitzua baloratuko dute

Ekainaren 10etik 12ra bitartean egin zen Mundumira jaialdia Arrasaten eta hara joateko autobus zerbitzu berezia jarri zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Pesa autobus konpainiarekin batera. Autobus zerbitzu horrek egun horietan izan zuen harrera baloratze-ko, prentsaurrekoa egingo dute gaur Arrasaten Koldo Azkoitia Lurralde Antolaketa eta sustapenerako diputatu foralak, Jose Luis Olaizola Foru Aldundiko Lur eta Garraioetako zuzendari nagusiak, Ignacio Lakunza Arrasateko alkate eta Debagoieneko lehen-dakariak eta Jose Luis Etxebarría Arrasateko udaltzainburuak.

Garraio plan berezia jartzea Debagoieneko Mankomunitatearen eskariz egin zen eta balorazioa egingo dute 11etan Arrasateko udaletxeko osoko bilkura aretoan.

ESKORIATZA | GAUR SARTUKO DA INDARREAN

Udalak Trafiko sailera bideratuko ditu isunak gaurtik aurrera

Gaur sartzen da indarrean Eskoriatzako Udalak onartu duen trafiko ordenantza berria. Horren arabera, udaltzainek aurrerantzean jarriko dituzten isun eta salaketa guztiak Jaurilaritzaren Trafiko sailera bideratuko dira. Ondorioz, salaketa jasotzen duenak ezingo du udaletxera jo; Jaurilaritzan egin beharko du erreklamazioa. Gainera, isunak handiagoak izango dira.

Hala ere, eta gaur bertan jarriko denez indarrean, lehenengo aste honetan zehar udaltzainen salaketa horiek ez dira Trafikora bidaliko; herritarrek oharra jasoko dute lehenengo astean.

ANTZUOLA | EGUAZTENEAN IZANGO DA

Mairuaren alardera entseguak hasiko dira aste honetan

Uztailaren 16an, zapatua, izango da Antzuolako jaien barruan egin den Mairuaren Alardea eta etzi, eguaztena, egingo da lehenengo entsegua. Herriko pilotalekuan izango da lehenengo entsegu hori, gaueko 9etatik aurrera. Bigarren entsegua, jaien hasieren bezperan izango da, uztailaren 13an, eguaztena.

Antolatzaileek, entsegurako deia egiteaz gainera, danborjotzaileak falta direla adierazi dute. Hortaz, uztailaren 16an horretan jardun nahi duen edozein eguazteneko entsegura ager dadila eskatu dute. Bestetik, Alardean herriko abesbatzak abesten dituen bertsoen testuak jendaurrean jarriko direla iragarri dute.

Hitzorduak



ARAMAIOKO UDA IKASTAROA HASIKO DA GAUR, ASTELEHENA | 'Euskal Herria, 1789-1848, historia, hizkuntza, artea' da izenburua

Euskal Herriarendako erabakigarria izan zen garai baten ikuspegi zabala eskaintzea da IV. Aramaio-ko Uda Ikastaroaren helburua. Horretarako, 14 adituk hitzaldiak eta mahai inguruak egingo dituzte Aramaioko kultura etxean hilaren 4tik 7ra bitartean, 16:00etatik 20:00etara arte.

Ikastaroa gaian interesa duen edozeini dago irekita. Informazioa eskatzeko, deitu 902 19 96 47 telefonora edo bidali mezu bat aramaio@hurbilkulturgaiak.com helbidera. Arabako Foru Aldundiak eta Aramaio Udalak antolatzen dute (irudian, iazko ikastaroaren hasiera ekitaldia).

ANTZUOLA |

- **Jaietako lepoko zapiak tabernetan erosteko aukera** Tabernetan ari dira saltzen jaietako lepoko zapiak, 1,5 eurotan. Gainera, Anelkarrek txartelak salduko ditu euro baten. Jasotako dirua Brasil, Senegal, Kongo, Ekuador eta Uruguai-ko proiektuetarako izango da.
- **Kalebarrengo jaietako zozketan, 1.862 zenbakia.** Kalebarrengo jaietako zozketan, 1.862 zenbakia saritu dute. Lau lagunendako afaria jasoko du irabazleak.

ARETXABALETA |

- **Erretiratuak kostaldera joango dira hilaren 12an** Basotxoko erretiratuak kostaldera joango dira hilaren 12an, martitzena. Donostian goiza pasatu eta Zarautzen bazkalduko dute. Izena emateko, jo euren egoitzara hilaren 8ra bitartean.

ARRASATE |

- **Gazteendako ekintzak antolatu ditu Txatxilipurdik** Gazteendako hainbat ekintza antolatu ditu Txatxilipurdik: etzi, eguaztena, zinema emanaldia eta afari-merienda izango dituzte, 19:30ean; eta eguaztena, hilak 7, Udalara irteera. Argibideetarako, deitu 943 79 54 46 edo 943 77 17 39 telefono zenbakietara.

• **Gazte eta Sexologia zerbitzuen udako ordutegia**

Gazte Bulegoak honako ordutegia izango du udan: astegunetan, 10:00etatik 14:00etara bitartean; astelehen eta martitzenetan, 17:00etatik 20:00etara. Sexologia Zerbitzuaren ordutegia hauxe da: astelehenetan, 11:00etatik 13:00etara bitartean; martitzenetan, 16:30etik 20:00etara; egubakoitzetan, 11:00etatik 13:00etara.

BERGARA |

- **Ipintza institutuan matrikula egiteko epea** Etzi, eguaztena, duzue Ipintzan batxilergo ikasturteetan matrikulatzeko azken eguna. Bulegoa zabalik dago 09:00etatik 13:30era bitartean.

- **Donostiara joango dira San Joxepekoak hilaren 20an** Donostiara irteera antolatu dute San Joxepeko erretiratuak hilaren 20rako. Miramongo parkera joango dira, besteak beste. Autobus geltokian batuko dira 09:00etan. Izena emateko, joan euren egoitzara.

- **San Joxepe elkarteak bi irteera antolatu ditu** Igeldo eta Orio ingurura mendi irteera egingo dute uztailaren 12an. 20 euro da. Bestetik, irailaren 26tik urriaren 2ra Girona Cultural ibilbidea egingo dute. Hori 360 euro da.

DEBAGOIENA |

- **Lanbide Hastapenean matrikulazio epea, zabalik** Debagoieneko Lanbide Hastapenean matrikula egiteko aukera dago gaur, astelehena, hasi eta hilaren 15era bitartean. Ikasturte berrian, hainbat profil landuko dituzte: modulu-altzariak egiteko laguntzailea, industria mekanikoko laguntzailea...

- **Denontzako Kirol Jaia egingo dute hilaren 9an** 13. Denontzako Kirol Jaia izango da datorren zapatuan, uztailak 9, Arrasateko Iturripe kiroldegian, 10:30-13:00. Gutxitu fisikoek denetarik ariketak egingo dituzte. Izena emateko, deitu 943 77 91 67 telefonora.

DEBAGOIENA |

- **18/98 + plataformak webgunea zabaldu du** 18/98 + plataformak www.18-98plus.org webgunea zabaldu du sumario horren gainean eta egingo dituzten mobilizazioen gainean informatzeko.

OÑATI |

- **1977ko kintok bazkaria egingo dute uztailaren 23an** Izena emateko, sartu 40 euro 3035 0005 34 0050038303 (Euskadiko Kutxa) edo 0042 0038 25 0235253512 (Banco Guipuzcoano) kontuetan. Mugaeguna da uztailaren 16a.

Iritziak



Isilpekoak

943 76 92 71
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Kanpanzarrerako sarrera 'kaotikoa'

Roneo parean dagoen biribilgunea oraindik ere nahiko *kaotikoa* dela esaten idatzi digu irakurle batek. Kanpanzarrerako sarrera ireki zutela kontatu genizuen orain dela aste batzuk, baina, "antza denez, batzuk oraindik ez dira enteratu", dio gure irakurleak. Kontatu digunez, "orain dela pare bat egun, Bergararik Arrasatera nindoala kontrako norabidean zetorren auto batek Kanpanzarrera bidea hartu nahi izan zuen eta horretarako, biribilgunean bertan egin duten sarrera erabili beharrean, lehengo bidegurutzera erabili zuen eta nire aurretik pasatu zen, gurutzatu egin zitzaidan, inolako arazo barik. Ez dakidana da, behin hori eginda Kanpanzarreko saihebidera arazo barik sartzea lortu zuen ala bidea itxita topatu zuen. Horrelakorik gehiago ez pasatzeko, egokia litzateke biribilgunea iritsi aurretik bide-seinale egokiak jartzea eta han adieraztea Kanpanzarrerako saihebidera hartzeko modu bakarra biribilgunea sartu eta hango sarrera-bidea erabiltzea dela".

• Argi gutxiegi dagoela salatu dute

Uda partean egunak luzeagoak izatera, argi artifizialaren beharra txikiagoa izaten da iluntzean. Hala ere, Eskoriatzatik Aretxabaletarako oinezkoendako bidean dagoen argi eskasia ez da aurrezteko hartu den neurri bat. Gure irakurle batek salatu duenez, "udan jende gehiago animatzen da iluntzeko freskura aprobetxatuz paseoa egitera. Tamalez, Eskoriatzatik Aretxabaletarako oinezkoendako bidean ez da nahikoa argi egoten eta bat baino gehiago ez da ausartzen ohitura sano hori betetzen". Horren aurrean, irakurleak eskaria egiten die Aretxabaleta edo Eskoriatzako Udalei arazoa konpondu dezaten eta argi gehiago jarri dezaten.

Sarean harrapatuta

Gehiago irakurtzen duzu uda partean?

Aurten ere Biblioporren gida kaleratu dute Debagoieneko udaletako liburutegiek. Eta berrikuntza modura ikus-entzunezkoen eskaintza zabala jasotzen du gidak. Hala, Biblioporren gida aitzakia hartuta, eztabai-

darako galdera jarri dute *Goiena.net* atarian: *Opor garaian liburuak irakurtzeko ohiturarik baduzu?* Galdera horri erantzun diote irakurleek. Gehienek udan gehiago irakurtzen dutela diote.

KANTITATEA EZ, LEKUA ALDATZEN DUT UDAN

Nik irakurtzeko lekua aldatzen dut udan. Neguan ohean irakurtzen dut normalean eta udan, berriz, balkoian.

Ines / www.goiena.net

HONDARTZA ETA IGERILEKUA LEKU ONAK

Nik gehiago irakurtzen dut udan. Hondartza edo igerilekua leku aproposak iruditzen zaizkit irakurtzeko. Gustura egoten naiz bi leku horietan irakurtzen.

Bi / www.goiena.net

JATETXEETAKO MENUAK IRAKURTZEN DITUT

Hemen jatetxeetako menuak bakarrik irakurtzen ditugu, bai udan eta bai neguan.

Hiru / www.goiena.net

GEHIAGO IRAKURTZEN DUT UDA GARAIAN

Nik uda irakurtzeko aprobetxatzen dut. Denbora libre gehiago daukat eta igerilekuan nahiz etxe-ko balkoian irakurtzea gustuko dut. Batez ere eguraldi ona egiten duenean.

Irakurle / www.goiena.net

UDAN IRAKURTZEA EZ ZAIT GUSTATZEN

Ni ikaslea naiz eta urte osoa irakurtzen pasatzen dudanez, udan

ez zait irakurtzea gustatzen. Ikasurtean nahikoa egiten dut.

Ikaslea / www.goiena.net

JENDEA IRAKURTZERA ANIMATU NAHI DUT

Ba nik urte guztia pasatzen dut liburuak irakurtzen eta udan ere liburuak irakurtzea asko gustatzen zait. Gainera, udal liburutegiek kaleratu duten gida oso ondo dago. Hemendik jendea animatu gura dut liburu gehiago irakurtzeko!

Irakurle amorr. / www.goiena.net

NEGUAN GEHIAGO IRAKURTZEN DUT

Nik neuk, negu partean askoz gehiago irakurtzen dut. Giro hotzarekin askoz gusturago hartzen da ohean edo sofan lasai-lasai irakurtzen egotea, udan baino. Hala eta guztiz ere, aurtengo udan saiatuko naiz pixka bat ilustratzen.

Euskal literat. / www.goiena.net

ESKUAK IRAKURTZEN ARITZEN NAIZ JAIETAN

Ni jairik jai ibiltzen naiz txosna batekin eta 10 euroren truke eskuak irakurtzen ditut etorkizuna asmatzeko.

Pitonisa / www.goiena.net

GEHIAGO ETA MAIZTASUN HANDIAGOZ UDAN

Bai, udan gehiago irakurtzen dut eta gainera maiztasun handiagoarekin. Denbora libre gehiago dudanez, aprobetxatu egiten dut irakurtzeko.

Imamon / www.goiena.net


BESTE GAUZA BATZUK EGITEN DITUT UDAN

Nik ez dut gehiago irakurtzen. Irteerak egiteko, lekuak ikusteko, festetarako... aprobetxatzen dut uda eta ez liburuak irakurtzeko. Nahikoa irakurtzen dut urtean zehar!

Lolo / www.goiena.net

www.goiena.net

Opor garaian liburu gehiago irakurtzeko ohitura duzu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Globalizazioaren aurrean MCCk dituen erronkak aztertu dituzte Oñatiko jardunaldietan. Zeintzuk dira



JON MUNIATEGI | DIKAR-EKO GERENTEA

Globalizazioa erronka dela argi dago eta horri aurre egiteko gure posizioak hobetu behar ditugu, berritzaileak izanda. Berritzaile azkarrak izan behar dugu; txinatarrak baino azkarragoak. Produktibitatean ere hobeak izan behar dugu, osterantzean oso gaitz izango dugu.



TERE MARCOS | COPRECI-KO PERTSONAL BURUA

Formazioa, komunikazioa eta ezagutzaren gestioa ezinbesteko elementu bihurtzen dira.

Talde Kooperatiboa osatzen duten lantegietako giza baliabideen politiken koherentzia zaindu behar da eta pertsonen konpromisoaren garapena bermatu beharra dago.



INAZIO IRIZAR | MU-KO IRAKASLEA

Bata lehiakortasuna, eta horretarako kanpora atera behar gara. Bigarrena, kooperatibismoaren nortasuna mantentzea eta kanpora ateratzea: partaidetza, elkartasuna eta demokrazia gure filialtan ere gauzatu. Hirugarrena, tamaina handitu: beste batzuk erositik edo haiekin elkartuz.



FERMIN GARMENDIA | LKS CONSULTING-EKO GERENTEA

Batetik, kanpoan ditugun enpresak nola gestionatu erabakitzea, hau da, hemengoarekin nola bat etorri atzerriko enpresaren gestioa. Bestetik, kanpo merkatuko presentzia barnekoa bezain indartsua izatea. Hirugarren erronka zerbitzuen internazionalizazioa indartzea litzateke.



Egunkarietako harribitxiak

EUSKAL HERRIAN GEHIEN DANTZATUTAKO IHESALDIA

1985. urteko uztailaren 7an, bi euskal presok ihes egin zuten Martuteneko kartzelatik: Joseba Sarrionandia eta Iñaki Pikabea ziren. Egun hartan, Imanol kantariak emanaldia egin zuen kartzelan. Bukatzean, ez zen kartzelatik joan zen bakarria, *Pitiki* eta *Sarriki* gauza bera egin zuten.

'Gara'
2005-07-03



EURIA EGITEKO MAKINA

Belgika eta Espainiako hainbat zientzialarik *beroaren irila* deitzen den sistema berritzailea sortu dute. Eguzkiaren izpiak xurgatzen ditu, laino artifizialak sortu eta euria egitea lortzen du. Makinaren oinarria da: zoruan ehun asfaltikoa jarri behar da, bi bat kilometro kuadroko azalerakoa eta berotzean, hezetasun lanotagailu erraldoia balitz bezala funtzionatzen du.

Sortzaileek diote ehun asfaltiko bakarrak 120 kilometro karratu ureztatzeko balioko lukeela. Dena den, oraindik ez dute lortu Udalen batek bi kilometro karratu lagatzea ehun asfaltikoa jartzeko. Bestalde, baieztatzen dute sistema hori ez dela zientzia fikzioa: Israelgo Negev basamortuan, Ekialde Hurbileko ingururik lehorrenean jartzekotan dira.

'El Mundo'
2005-07-03



Tira, tira...



Martintxo 'Berria' | 2005-VII-03

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

IGOERA GERATZEKO PLAN GEHIAGO

Etxebizitzaren prezioaren igoera moteltzen joango ei da datozen hilabeteetan, baina ez da jaitziko etxearen prezio errealerara hurbildu arte. Ez aste honetan Madril haritutako neurriek ezta onartzeko diren beste batzuek ere, ez dute ahalbideratuko erabateko aldaketarik etxebizitzaren merkatuak zehazten duen bidean.

Editoriala
2005-07-03

'El Diario Vasco'

BABESTUTAKO ETXE GEHIAGO

Etxebizitzaren Plana bide onetik doa, nahiz eta behin betiko iritzia eman beharko dugun guztiz gauzatzen denean. Lurraren arazoa ez bada konpontzen eta, batez ere, ez bada lortzen alokairuaren merkatua piztea -jabeendako erakargarri izango diren legeen bidez-, hutsune asko geratuko dira oraindik.

Editoriala
2005-07-03

'Deia'

JAIA ETA ESKUBIDEAK

Eginkizun legislatiboak errealitatei men egin die egunotan, eta erantzun ere egin die, norbanakoaren eta taldearen askatasunarekiko errespetuarekin eta inori kalterik eragin barik. Besteak, eztabaida moralak, atzo bezain legitimo izaten jarraitzen du gaur egun ere: baina ez dauka zertan legea markatu.

Editoriala
2005-07-03

'El Mundo'

DESAKORDIOA ETA FOBIA NAHASTUZ

100.000 lagunetik behera joan izanak adierazten du gayen ezkontzarekiko gizarteak erakusten duen elkartasuna ez dela manifestazioa deitu zutenek esaten duten bezain handia, eta ez dela nahikoa muturreko diskurtsoa bultzatzeko. Zoritxarrez, atzoko manifestu gogorak erakusten du mugimendu homosexualaren gidaritzan nolako den.

Editoriala
2005-07-03

Zorroztailea



Popa bistan

Ariketa polita da norbere hitz eta espresioen baratzean homofobiak landatu dituen porrueri erreparatzea: atzelari, gixon, marimutil, maritxu, marikoi, tortilera, popabero... Lege bat onartu berri dute Madrilko partean. Berdin ditzala berdindu beharrekoak. Lege bat baino zerbait gehiago beharko da gure baratzte mentaletako porruak ipurditik ateratzeko.

Anjel Lertxundi

'Berria' | 2005-07-02

Gerardo Markuleta

Gaztetxo ginela, *Goenkalerik* ez. Orduan ikusten genuen telebista bakar hartan ez zebilen lanean Klaudio Landa edo Boris Izaguirre bezalako aurkezlerik. Begiatarra zitzaizkigun filmetan ez zen agertzen gizonen arteko amodioirik (eta, jatorrizkoan halakorik izanez gero, bikoiztean zentsurak beste edozertaz mozorrotzen zituen maitasun homoerotiko haiek). Sexualitateari buruz eskolan jartzen zizkiguten filmiak, huts-hutsean, gizon eta emakume banaren arteko sexu-jardunaz ziren.

Etxean, gerra garaia bera baino gai are tabuagoa zen, oro har, sexua; zer esanik ez, sexu berekoen artekoa. Ageriko homosexualitateari gabeko mundua saldu ziguten txikitari. Koxkortu ahala, ordea, hitz eta esamolde iraingarri andana luzea joan ginen ikas-

ten, artean oso zehatz jakin barik zer esan nahi ote zuten zehatz: *marikoa, tortillera, maritxu, marimutil, popatik, portzulo hartzera*. Eta txisteak, txisteak ugari.

Beste edonon bezala, ordea, gure inguruan bazen (agerian edo ez hainbeste) mutilak maite zituen mutilik, bai eta (batere agerian ez normalean) neskak atsegin zituen neskarik ere. Ikaskideen artean, gertuko familian edo urrutikotan, adiskideren bat, lankideak... Beste zer askorekin gertatzen denez, benetako homosexualak eza-gutu ahala, txiste eta karikaturretako homosexual-irudia lausotu egiten da, gezurtatu, deuseztu.

Azken proiektzio estatistikoen arabera, gizakiongan lautik batek omen ditu joera homosexualak. Horrenbesteko jende pila sartzen den armairurik non ote da? Eta nor izan da halako altzari erraldoia egiteko adinako arotza?

"Azken proiektzio estatistikoen arabera, gizakiongan lautik batek omen ditu joera homosexualak"

"Horrenbeste jende pila sartzen den armairurik non ote da? Eta nor izan da halako altzari erraldoia egiteko adinako arotza?"

KIROLA

- Bergarako Karatekoek 10. urteurrena ospatzeko erakustaldia egin zuten | 17
- Aitor Mendizabalek ezin izan zuen ETB Kantxako txapelketa irabazi | 19



Jokin Laspiur,
Shanghaiko Court
Jesters saskibalo
taldeko jokalaria
hitz egin dugu | 21

TORREAUZOKO VIII. KROSA



Bouazza El Mastati, Elena Huarte, Mohammed El Guarrah, Maria Isabel Sixto, Pedro Muñoz eta Sarai Muñoz, hurrenez hurren, Torreauzoko VIII. krosetako podiuean.

JOKIN ETXEBARRIA

KROSA | AURTEN 111 KORRIKALARIK HARTU DUTE PARTE TORREAUZON. PROBAKO ERREKORRA.

Bouazza El Mastati izan zen azkarrena Torreauzoko krosetan

Lehen bi sailkatuak marokoarrak izan ziren eta ibilbidea guztia batera egin zuten

Lehen oñatiarra Joxe Mendiola izan zen; bosgarren postuan bukatu zuen azkenean

Jokin Etxebarria

Zortzigarrenez jokatu zen atzo Torreauzoko kroseta Oñatin. Euskal Herriko hainbat puntutatik etorri ziren korrika egitera eta ahal izanez gero duela hiru urte Abdeslan Serrokh marokoarrak 7,6 kilometroko ibilbidean jarritako marka haustera. Guztira

111 pertsonak hartu zuten parte. Parte-hartzaile kopuruari dagokionez errekorra hautsi da. Geroz eta jende gehiago etortzen da parte hartzera; proba izen ona hartzen dabilen seinale.

Korrikalari gehienak bailarakoak ziren, baina proba has-teko ordu laurden falta zela, Bilbotik etorritako bi marokoar

agertu ziren: Bouazza El Mastati eta Mohammed El Guarrah. Antolatzaileei ordainsaria zenbategoa zen eta errekorra zenbat denboran zegoen galdetu ondoren, zapatilak jantzi eta irteran jarri ziren, lau luzatze-ari-keta egin eta abiatzeko prest.

Marokoarrak korrika nolakoak diren guztiok dakigu, eta ez zen sorpresarik egon, hasieratik bukaeraraino lehen postuan jardun zuten. Hasiera batean errekorra lortuko zutela ematen zuen arren, azkenerako gogorra egin zitzairen eta errekorretik minutu batera gelditu ziren.

ONĀTIARRAK LEHEN POSTUETAN

Ibilbidea nolako den hobetoen ezagutzen dutenak Oñatikoak bertakoak dira. Eta ederki erakutsi

zuten ibilbidearen gogortasunak nolakoak ziren bazekitela, lehen 20 korrikalarien artean bost herri-tar sailkatu ziren eta.

Herriko onena Joxe Mendiola izan zen, 25 minutuko denbo-

rarekin, Bouazza El Mastati irabazlearen denboratik bi minutu-tura. Bigarrena Asier Osinaga izan zen eta hirugarren, berriz, Iban Altube.

28 HAUR

Nagusien lasterketaren hurretik 28 haur ibili ziren lehen bi kilometrotako ibilbide batean. Bost mailatan sailkatuta, guztietan azkarrena Angel Lopez elgoibartarra izan zen.

Gauza bitxi bat gertatu zen haurren lasterketan. Kronometroak funtzionatzeari utzi eta 28 haurretatik inork ez zuen jakin ahal izan zenbategoa egin zituzten bi kilometroak.

Hala ere, pozik bukatu zuten guztiak, zozketa bidez, urdaiaz-pikoa, motxila, mendiko makila eta beste hainbat opari jaso zituzten-eta parte-hartzaile guztiak.


Euskal Herriko hainbat lekutatik etorri ziren korrika egitera Oñatira

Marokoarrak, azkenean, errekorretik minutu batera gelditu ziren


TORREAUZOKO VIII. KROSA



Hasiera-hasieratik ikusi zen marokoarrak aurrean ibiliko zirela.



Bouazza El Mastati heldu zen lehena Torreauzoko helmugara.



Joxe Mendiola izan zen probako oñatiar azkarrena.



111 pertsonak eman dute izena aurten. Probako errekorra.

Emaizak

LEHENGOAK

| | |
|------------------------|---------|
| 1. Bouazza El Mastati | (23:11) |
| 2. Mohammed El Guarrah | (23:12) |
| 3. Pedro Muñoz | (24:05) |
| 4. Cipri Burcio | (24:26) |
| 5. Joxe Mendiola | (25:01) |
| 6. Jon Arzubialde | (25:14) |
| 7. Agustin Jimenez | (25:22) |
| 8. Juan Antonio Soto | (25:38) |
| 9. Gotzon Solaegi | (25:39) |
| 10. Asier Osinaga | (26:31) |
| 11. Jon Ezpeleta | (27:10) |
| 12. Florencio Diaz | (27:23) |
| 13. Juan Alberdi | (27:59) |
| 14. Juantxo Arregi | (27:59) |
| 15. Mikel Berduo | (28:36) |

JUNIOR MAILAKO MUTILAK

| | |
|---------------------|---------|
| 1. Adur Juaristi | (29:39) |
| 2. Arkaitz Azkoitia | (31:09) |

KADETE MAILAKO MUTILAK

| | |
|--------------------------|--|
| 1. Angel Lopez | |
| 2. Jon Belaustegi | |
| 3. Borja Ortiz de Urbina | |

INFANTIL MAILAKO NESKAK

| | |
|--------------------|--|
| 1. Raquel Avila | |
| 2. Maria Hernandez | |
| 3. Otzalar Urain | |

INFANTIL MAILAKO MUTILAK

| | |
|------------------|--|
| 1. Borja Diez | |
| 2. Unai Albizuri | |
| 3. Julen Agirre | |

KIMU MAILAKO MUTILAK

| | |
|---------------------|--|
| 1. Andoni Ugarte | |
| 2. Aitor Etxebarria | |
| 3. Ibon Belaustegi | |

INFANTIL MAILAKO NESKAK

| | |
|------------------------------|--|
| 1. Leire Mancisidor | |
| 2. Nora Santiago | |
| 3. Janire Fernandez de Olano | |

• HONELA IKUSI DUTE PARTE-HARTZAILEEK AURTENGO KROSA



BOUAZZA EL MASTATI |
BILBO

“Sei urte daramatzat Espainian eta kros askotan parte hartzen dut, baina Torreauzokoan lehen aldiz hartu dut parte aurten. Hasieran errekorren bila joan naiz, eta lortuko nuela uste nuen, baina ibilbide bukaeran aldapa gogorrak zeuden eta gutxiatik bada ere ezin izan dut errekorra lortu”.



ELENA HUARTE |
LEGAZPI

“Bigarren urtea da parte hartzen dudana, eta nahiz eta nire formarik onenean ez naizen etorri, iaz baino hobeto ikusi dut nire burua. Agian ibilbidea ezagutzen nuelako edo. Hala ere, hasiera aldapa gora denez, dena ematen saiatu naiz hor, eta gero, jaitsieran indar gabe gelditu naiz eta asko kostatu zait helmugara heltzea”.



RAMON VARELA |
OÑATI

“Oso gogorra izan da. Aldapa gora asko igo behar da, eta gero jaitsiera ere gogorra egiten da. Bero larregi egiten zuen gainera. San Julian inguruan ez zegoen aire printzarik ere, eta lasterketa uzteko egon naiz. Urtero parte hartzen dut, eta urtero ibiltzen naiz betereanoen sariaren bila. Aurten hirugarren bukatu dut”.



ANGEL MARI LOPEZ |
ELGOIBAR

“Nahiko gogorra izan da. Bero handia egiten zuen eta ibilbidea ere gogorra izan da. Hala ere txapeldun gelditzea lortu dut eta pozik nago. Laugarren aldiz etorri naiz Oñatira, eta hurrengo urteetan ere etortzeko asmoa dut. Aurten bezain ondo ibiltzea zaila izango da, baina ahaleginak egingo ditugu, behintzat”.

IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA | MAIATZAREN ERDIAN TXAPELKETA HASITA, FINALAK JOKATZEKO GARAIA IRITSI DA

Aurten, 50 taldek jokatu dute Bergaran Ipintzako Futbol Txapelketa tradizionalen

Futbol 11ko eta senior nesken mailako finalak datozen egunetan jokatuko dituzte

Jokin Etxebarria

Urteak dira Bergaran udako futbol txapelketa jokatzen dutela. 1971z geroztik Bergarako futbolzaleak Ipintzan ibiltzen dira uda heldutakoan zein koadrila den bestea baino hobea ikusten. Aurtengoan 50 taldek hartu dute parte, bost mailatan banatuta. Maia-

tzaren erdialdean hasi ziren baloia ate barrura sartu nahian. Zazpi urte dira neskak ere Ipintzako txapelketan jokatzen hasi zirela. Aurten hiru maila egon dira: kimu maila, kadete maila eta seniorrak. Lehen bi mailatan finalak egunean jokatuko ziren. Kimu mailan Txikipung izan zen txapelketa, Boto-

bekutzi 3-0 irabazita. Kadeteetan, berriz, Lanroberrak izan ziren irabazleak.

BETERANOAK EGUBAKOITZEAN

Gizonezkoetan bi maila egoten dira normalean. Aurtengoan, baina, 38 urtetik gorako beteranoendako ere final berezi bat

antolatu zuten. Bi final egon ziren egubakoitzean beterano mailan: 38 urtetik gorakoetan Ezin leikek 3-2 irabazi zion Txipiron-i eta beta beterano mailan Betikuak 1-0 irabazi zion Bildurbarik-i.

Senior nesken finala bihar, martizena, jokatuko dute, eta futbol 11ko finala, berriz, uztailaren 15ean.



Txikipung taldea izan zen kimu mailan txapeldun Botobekutzi-i 3-0 irabazita.



Kadeteetan Lanroberrak jaun eta jabe izan ziren aurtengo txapelketan.



38 urtetik gorako beterano mailan Ezin leikek irabazi zuen finala.



Betikuak izan ziren beterano mailako txapeldunak Bildurbarik-i 1-0 irabazi ondoren.

• HONELA IKUSI ZUTEN PARTE-HARTZAILEEK



MAITE | TXIKIPUNG

“Ezin hobeto jokatu dugu finala. Hala ere, kostatu egin zaigu irabaztea, kontrarioak gogor ibili dira eta. Azkeneko gogorra izan da, baina guk defentsan oso lan ona egin dugu eta horregatik irabazi dugu”.



OLAIA | LANROBERRAK

“Jokatutako bost partiduak irabazi ditugu. Finala irabaztea asko kostatu zaigu, baina ongi jokatu dugu eta azkenean 3-2 irabazi diegu. Gainera, jokalarionaren saria eman didate. Ezin kexatuko gara lortutakoaz”.



BOLI, LUIS JABIER ETA IÑAKI | EZIN LEIKE

“Ezin gaitzeko kexatu, gutxienez finala 3-2 irabazi diogu eta Txipiron-i. Guztira 10 bat partidu jokatu ditugu eta gutxienez finalera iristeko beste partidu irabazi ditugu. Urtero jokatzen dugu txapelketa honetan, eta hurrengo urteetan ere horrela izatea espero dugu, emazteek uzten badigute behintzat. Hala ere, geroz eta gogorrago egiten zaigu horrelako zelai luzeetan jokatzea. Urteak aurrera doaz eta 25 minutuko bi zati jokatzeke moduko forman gotea ez da erraza izaten guretzako”.

KARATE SHOTOKAN | BERGARAKO TALDEAK 10. URTEURRENA OSPATZEKO ERAKUSTALDIA EGIN ZUEN ZAPATUAN BERGARAKO KIROLDEGIAN

Bergarako karatekek erakustaldia egin zuten euren 10. urteurrenean

Bergarako Shotokan taldeak 10. urteurrena ospatzeko modu polita aukeratu zuten, bai ikasleendako eta baita bertaratu zirenendako ere

Jon Unamuno

Hamar urte pasatu dira Shotokan karate taldea sortu zela. Hasiera batean ez zuten ikusmin handirik sortu (10 ikasle), baina urteak pasa ahala, gero eta ikasle gehiago ari da kirol honetan. Denboraldi honetan 102 ikasle aritu dira Ekialdetik etorritako kirol honetan jo eta su.

Shotokan Karateko bost estilo nagusienetarikoa bat da (wado-ryu, gojo-ryu, shito-ryu eta kyushinkairekin batera). Estilo bakoitzak teknika, abiadura eta potentzia maila desberdinak erabiltzen ditu. Okinawako irlan sortu zen eta aitzindaritzat Gichin Funakoshi aipatu daiteke. Tigrea du ikonotzat; izan ere, eurak dioten moduan "tigreak ez du sekula lo egiten, beti dago tentuz noiz zer gertatu jakiteko". Autodiziplina, jarrera positiboa, espiritua altxatzea... hainbat kontzeptu zeharka lantzen dira, azken finean, norbanakoak duen energia modurik egokienean nola erabili erakusten duen kirola da. Baina ez hori bakarrik, bizitzeko filosofia bat ere bada: egunerokotasunak dakartzan egoerei



AINZANE AGIRRE

Urtean landutako teknikak erakutsi zituzten Shotokan taldeko ikasleak eta ikusleak oso gustura egon ziren.

errespetuz aurre egiteko modu bat da karatea.

Horrek guztiak forma praktikoa hartu zuen zapatuan. Erakustaldi bat eginez ospatu nahi izan zuten urtemuga, eta bide batez, denboraldia agurtu. Josean Iñarra elkarteko alma materra

da eta zera adierazi zuen: "azken hiru hilabeteetan ekintza hau gertatzen jardun dugu. Lan neketsua izan da; izan ere, jende asko mugiarazi behar da eta horrek orduak eskatzen ditu. Erakustaldiak izan duen arrakasta ikusita, lan ona egin dugula uste dut".

Gurasoendako eta erakustaldia ikustea nahi zuen edonondako zen zapatukoa. Asko gozatu zuten bertan bildutakoek eta erakustaldiak iraun zuen bi orduak azkar pasatu zitzaizkien. Oso ikusgarria izan zen bertan ikusitakoa. Gaztetxoek urtean landutako oinarriko teknikak erakutsi zituzten (Tsuki, Mae, Geri...). Nagusienek ere berdintsu jardun zuten, baina landutako teknikak erakustez gain (Katak...), armak ere atera zituzten kantxara. Ikusleek asko gozatu zuten saioaren zati horrekin, katanen mugimendu eta zaratak oso ikusgarriak izan zirenean.

IKASLEAK PROTAGONISTAK
Euren eguna izan zen, azken finean. Urte guztian entrenamendu gogorrak egin ostean, ikasitako dena erakusteko eguna izan zen zapatukoa. Josean Iñarraren agindupean ikasleek euren tebeziak erakusten jardun zuten.

Orain, merezitako oporrak izango dituzte eta gorputzak eta buruak beharrezkoa duten lasaitzeko unea izango dute karatekek. Hurrengo denboraldia irailean hasiko dute eta azken urteetan lortutako emaitza onak ikusita, metodologia berarekin jarraituko dute Japoniatik etorritako kirol hau irakasten; emaitzak hobetzeko asmoz, noski.

Denboraldi honetan 102 ikasle aritu dira Ekialdetik etorritako kirol honetan jo eta su

Entrenamendu gogorrak egin ostean, ikasitako guztia erakusteko eguna izan zen

• ZER MODUZ ZABILTZATE KARATE SHOTOKANEN?



XABI ETA DORLETA | BERGARA

Xabik lau urte daramatza karatean eta Dorletak lehenengo urtea izan du. Pozik ageri dira biak: "Batuetan oso gogorra da, baina ondo pasatzen dugu entrenatzen". Egitarau betea izan zuten zapatuan bi gazteek: "10:00etan etorri gara erakustaldia gertatzera", esan zuten.



IMANOL ETA IKER | OÑATI

Amak apuntatu zituelako hasi ziren karatean bi oñatiar hauek: "Amak apuntatu gintuen, baina oso gustura gaudete. Astean bi aldiz entrenatuta, gero eta gehiago ikasteko gogoia dugu. Entrenamendu bidez, maila handiagoko gerrikoak lortuko ditugu", adierazi zuten oñatiarrek.



JON ETA RAKEL | BERGARA

Bost urterekin hasi ziren Karatean: "Urte asko daramatzagu, baina onenak azken zazpi urteak izan dira Joseanekin. Aurten Euskadiko txapelketan emaitza oso onak lortu ditugu. Ea hurrengo urtean Estatuko txapelketarako sailkatzen garen", azaldu zuten.

DEBAGOIENKO FRONTENIS SARIA | ANGIOZARKO ARBIASKO FRONTOIAN JOSE IZQUIERDO ETA CANDIDO HURTADO ARRASATEARREK IRABAZI ZUTEN

Izquierdo eta Hurtado favoritoek ez zuten huts egin finalean

Aurreko finalak Arrasaten eta Oñatin jokatu ostean, Bergararen txanda izan zen. Erraz irabazi zuten Izquierdok eta Hurtadok

Jon Unamuno

Txapelketan parte hartu duten bikoterik onenak elkartu ziren Angiozarreko Arbiaska frontoian zapatuan.

Finalerdietan Jose Izquierdo eta Candido Hurtadok 25 eta 17 irabazi zioten Kepa Garcia eta Iñaki Saenz bikoteari. Ez zuten zailtasun handirik izan txapelketako irabazleek finalerdietako partidua irabazteko. Beste finalerdian Asier Delgadok eta Eder Arraizek 25 eta 21 irabazi zieten Hector Sanz eta Carmelo Barcalari. Asier eta Ederrek osatzen duten bikote gaztea lehengo aldiz sartu zen finalean. Hirugarren eta laugarren sailkatzeko partiduan Kepak eta Iñakik irabazi zieten 25 eta 23 Hectorri eta Carmelori. Partidu oso orekatua izan zen eta 23na berdindu ostean, azken bi tantoak Kepak eta Iñakik egin zituzten.

BETIKOAK IRABAZLE

Favoritoak ziren Jose eta Candido eta pronostikoak bete zituzten. Ez zen euren dako lehen gara-

pena izan Angiozarren lortutakoa. Aurrean, etorkizun handiko bikote bat izan zuten: Asier eta Eder. Aipatzekoa da Ederrek atzean egindako lana. Borroka polita izan zuen Candidorekin. Partiduko lehen zatia parekatua izan zen. Hala ere, Asierrek eta Ederrek 13 tanto egin zituztenean, Josek eta Candidok zazpi tanto jarraian egin zituzten eta partidua jabe egin ziren. Amaieran 30 eta 24 irabazi zuten.

Amaitu da txapelketa eta jende berriak sartzen dihardu txapelketan (esate baterako Josu Agirrezabal eta Eloi Crespo bergararrak). Txapelketa ostean, bazkaltzera eta musean egitera joan ziren bertaratutakoak.


Favoritoak ziren Jose eta Candido eta pronostikoak bete zituzten: ez zen lehen aldia



JON UNAMUNO

Txapelketa amaituta, Txarrantxa jatetxera joan ziren bazkaltzera eta ondoren Beti Alai elkartera musean egitera.

• FINALEKO PROTAGONISTAK



CANDIDO HURTADO |
ARRASATE

“Gogorra izan da finaleko partidua; izan ere, bikote ona osatzen dute. Ederrek izugarritzko maila erakutsi du atzeko aldean”, esan zuen.



JOSE IZQUIERDO |
ARRASATE

“Erdialdean hartu dugun abantaila erabakigarria izan da garaipena lortzeko eta amaieran nahiko eroso irabazi dugu partidua”.



EDER ARRAIZ |
ARRASATE

“Ez nuen espero finale-ra heltzea, orain arte finalaurdenetatik ez gara pasatu eta. Egunen baten irabaziko dugu guk...”.



ASIER DELGADO |
ARRASATE

“Eurak indar handia dute eta guk tanto batzuk huts egin ditugu. Hala ere, oso gustura nago egin dugun lanarekin”, adierazi zuen.

Pilota

Begararrek 16 eta 7ko emaitzarekin galdu zuten Beasainen aurkako finala

A.G.

Begarako 2. kimu mailako gazteek ezin izan zuten Beasainen aurka irabazi aurre teknifikazio txapelketako finala.

Begarako bikotea Igor Igartua eta Beñat Rezustak osatu zuten. Partidua nahiko parekatuta joan zen, erdira arte, baina beasaindarrak gehiago izan ziren azkenean, eta amaiera hobea eman zieten tantoei. Igartua

aurrelaria ondo ibili zen ezker-eskuin, eta Rezusta atzelari ezker-tia eskuina hobetzen dabil.

LANEAN JARRAITU BEHAR

Begarako bikotea Eskola arteko txapelketan ederki aritu da, eta maila ona erakutsi du. Begarako pilotariak beheko mailetan sendo aritzen dira, baina mailaz igotzen doazen heinean asko galtzen dute, eta hori hobetu beharra daukate.



REYES AZKOITIA

Irabazi ez arren, garaikurra eraman zuten etxera Beñat Rezusta eta Igor Igartua begararrek.

Aitor Mendizabal 16 urteko gazte antzuolarra da. Pilotaria da bera, eta egubakoitzean jokatu zuen Elgetan ETB kantzako 4 t'erdiko pilota finala Idoate

burlatarraren aurka; garaipena gertu izan arren, ezin izan zuen irabazi. Baina hala eta guztiz ere, pozik egoteko moduko lana egin zuen antzuolarrak, ehunetik gora

pilotariren artean bera izan baitzen partidu ugari jokatu ondoren, finalera iritsi zen debagoiendar bakarra. Partidu biharamunean egon ginen berarekin.

AITOR MENDIZABAL | OLALDE ELKARTEKO PILOTARIA

"Aurten ez dut lortu, baina berriz saiatuko naiz datorren urtean"

Jasone Zabala

**Atzokoa final gazi gozoa izan zen; finalera heldu eta garaipena esku-
ra izan ondoren 16 eta 22ko emaitzaz ezin irabazi...**

Hasiera ona izan zen, nahiko parekatuta izan ginen jokoan, baina gero gogortu egin zen finala; pilota guztiak eramaten zituen, nik ez nituen pilotak gozatu eta irabazi egin zuen azkenean Idoatek, nahiz eta partidua nahiko berdinduta joan zen.

Partiduaren lehen zatian ederki aritu zinen, ezker paretako gantxo pare batekin, eta gero bigarren zatian zer gertatu zitzaizun?

Esan dizudan bezala, hasieran ondo aritu nintzen, nahiz eta urduri atera nintzen, eta berak dena eramaten zuen gauza handirik egin gabe; azkenerako nekatu ere egin nintzen eta ezinean aritu nintzen. Gainera, Idoatek ateratako pilotak nahiko biziak ziren eta ematen zionean gehiago kostatzen zitzaidan niri eramatea bizi-bizi zetozelako pilotak. **Aurkariaren inguruan beraz, gogorra iruditu zitzaizun.**

Ondo ikusi nuen. Aurkari oso gogorra, ez da aurreko koadroetan tantoa amaitzea gustatzen zaien horietakoa. Nahiz eta aurrelaria izan, pilota denak eraman egiten ditu eta oso segurua da. **Partiduaren gakoa non ikusi zenuen?**

Erditik aurrera bera hasi zen pixka bat sendo, tanto pare bat sartu zizkidan sakez, eta handik aurrera nekearekin ezin izan nuen; gainera, Antzuolatik jarraitzaile dezente etorri ziren partidura eta honek ere urduri jarri ninduen.

Hala eta guztiz ere finalera iristea ez da gauza makala, eta gazte askoren artean zu bertan izan zara. Zuretzat zer izan da finalera heltzea?

Oso gustura nago, finalera ez da edozein heltzen. Gainera, herritarren aldetik zorionak jaso ditut, gauza asko esan dizkirate.

Lagunek ere esango zizuten zerbait finalaren ondoren, ezta?

Animoak eman zizkidaten, bai final aurretik bai ondoren. Eskertzekoak dira horrelakoak, baina lagunak beti lagun.

Botilero lanetan aita izan zen partiduan. Zer esan zizun aitak partidua aldapa gora jarri zitzaizunean?

Segitzeko pilotan, presaka ez ibiltzeko, baina momentu horietan ematen diren aholkuei kasu egin bai, baina kosta egiten dira aurrera eramatea, blokeatuta egongo bazina bezala sentitzen dituzu burua eta gorputza.

Botileroa izateaz gain, aita zure entrenatzaile ere bada.


Aita eta Felix Agirre aritzen dira entrenatzaile lanetan; gurekin batera entrenatzen dute Asier Nogalesek eta Aitzol Iturbek ere. Astean bi aldiz entrenatzen dugu, martitzen eta eguenetan, 7etatik 8etara, eta gero noizean behin korrika egitera ateratzen gara, fisiko piska bat egitera. Hemen-dik aurrera ere, berdin jarraituko dut entrenatzen, gogoz eta orain arte bezala.

Zure partiduen ondoren ere egon zen 23 urtez azpiko finala. Nola ikusi zenuen?

Ez nuen finala ikusteko denborarik izan, baina Berasaluzek nahiko erraz irabazi zuela ente-

"Finalaren gakoetako bat, partidu erditik aurrerako nekea izan zen"

"Egindako lanarekin oso gustura nago, ez delako edozein heltzen finalera"



Lan bikaina egin du Aitorrek txapelketa guztian zehar.

AINZANE AGIRRE

ratu nintzen. Ez da batere arraroa izan, txapelketa guztian zehar izugarritzko maila erakutsi baitu. Pilotari oso ona da Berrizkoa, indarra dauka, altuera ere bai; tantoak ederki amaitzen ditu.

Atzoko finalaren ondoren datorren urterako zer asmo duzu?

"Edozeinen ilusioa da egunen batean profesionaletan jokatzera eta lanean jarraituko dut"

"Pilotari Nafarrak gogor datoz. Baina Debagoieneko maila ere nahiko ona da"

Olaldeko pilota elkartean nabil; datorren urtean gogorra izango da, gazte mailara pasatzen naizelako eta gazteena izango naizelako maila honetan; saiatuko gara. Datorren urtean pentsatuta daukat ETB-Kantzako txapelketara aurkeztea, baina zaila edukiko dut aurten heldu naizen lekura heltzea, 23 urteko gazteen aurka jokatu beharra izango dudalako eta nabarituko delako diferentzia. Pare bat partidu irabaztearekin nahikoa edukiko dut, nahiz eta jakina den partiduak jokatu egin behar direla. **Eta are aurrerago begiratu gero, ikusten duzu zure burua profesionaletan?**

Hori ezin da esan, baina gustatuko litzaidake. Gehien gustatzen zaidan enpresa Aspe da, eta bertan pilotari bat aukeratzekotan Irujo aukeratu nuke. Baina pilotari baten aurka jokatzera aukeratu beharko banu, dudarik gabe Aimar Olaizola izango litz-

teke, dena egiten duelako ondo. **Pilotaz aparte eskolan ere ibiliko zara. Erraza da bi gauzak tartekatzea?**

Aurten DBH 4. maila amaitu dut, eta datorren urtean batxilergoa egiten jarraituko dut, pilota alde batera utzi gabe noski. Baina lehenengo ikasi egin behar dut zerbait segurua edukitzeko etorkizunean, inoiz ezin daitekeelako esan zer gertatuko den, pilota munduak buelta asko ematen ditu eta.

Debagoienean eta orokorrean gaur egun, zein maila ikusten duzu pilotarien artean?

Nafarrak oso gogor datoz, batez ere Burlata, Uharte, Lizarran aldetik, Errioxatik ere bai; eta hemen inguruan Debagoienean ere, badaude maila polita duten pilotariak, nahiz eta elkarrekin asko ez garen ibiltzen.

Orokorrean maila nahiko ona dagoela uste dut eskualdeko pilotarien artean.

Piraguismoa

• ESPAINIAKO TXAPELKETA

Espainiako txapelketa ona eginda amaitu du denboraldia Beti-Bustik

Sort herrian jokatu da Espainiako txapelketa eta sailkapenean postu onak lortu zituzten debagoiendarrek

A.G.

Asteburuan Sorten (Huescan) egin zen Espainiako piraguismo txapelketa, eta Beti-Busti taldekoek lan bikaina egin zuten.

Leire Fernandezek domina gertu izan zuen, baina laugarren postuarekin konformatu behar izan zuen gazte mailan. Patruiletan, 3. postua lortu zuen Beti-Bustik, eta taldekako puntuaketan berriz, 5. sailkatu ziren.

Bestalde, ekainaren 18an Euskadiko Txapelketan ere bikain aritu ziren Debagoiengoak: Leire Fernandez txapeldun geratu zen gazte mailan. Markel Cestafek hirugarren postua lortu zuen, honek ere gazte mailan. Beteranoetan, Iñaki Gallastegi hirugarren izan zen, maila ona erakutsi ondoren. Beti-Bustiko patruila bigarren izan zen, hauek ere lan bikaina eginez eta taldekako sailkapenean, berriz, hirugarren gelditu ziren. Bi proba



Leire Fernandez irabazle izan da aurtengo Euskadiko txapelketan; lan bikaina egin du.

hauekin amaitu dute Beti-Bustikoek denboraldia. Aurtun ere erakutsi dute lehiakortasun handia dagoen arren, maila bikaina daukatela, eta emaitza bikainak lortu dituzte orokorrean, bai amai-

tu berri den Espainiakoan eta baita Euskadiko txapelketan ere.

BEÑAT SANCHEZ GOGOAN

Asteburuan piraguista batek baino gehiagok bere burua ez zuten

txapelketan izango, gaixotasun baten ondoren Beñat Sanchez kidea beraien ondotik joan delako; horregatik, lortutako postu bikainak berari eskaini dizkio te Beti-Bustikoek.

Labur

Floren Nazabal onena izan zen 15 punturekin

Maila handiko aizkolariek (Mikel Mindegia, Floren Nazabal eta Jose Mari Olasagasti) jardun zuten Aramaioko Bixente Goikoetxea plazan 24 enbor puntueta-ko txapelketan (zutik, arinka, golpeka, ligila eta luzeta). Arabako harri-jasotzaile txapel-dunak ere bertan egon ziren: Carlos Atxa eta Gatzagako tigrea.

Nazabal onena izan zen eta proba guztiak irabazita, 15 puntu lortu zituen. Bere atzetik Mindegia sailkatu zen bost punturekin eta Olasagasti hirugarrena izan zen lau punturekin. Carlos Atxak eta Gatzagako tigreak erakustaldia egin zuten harriekin; lehenak 125 kilo jaso zituen, eta bigarrenak, berriz, 230 kilo jaso zituen. Aramaiokoa ligako lehen proba zen eta Nazabalek Zornotzan ligako lehen postuari eutsi beharko dio bi aste barru.



Aizkolaria gogor aritu ziren.

Txirrindularitza

Aitor Laskurainek irabazi zuen San Martzialera igoera 5:53 denborarekin

Jon Unamuno

San Martzialeko igoerak eman zion atzokoan bukaera Antzuolako txapelketari. Kanterako zubian izan zuten hasiera eta ermitan helmuga. Igoera gogorra eta motza da eta, gainera, eguzkiak ondo berotu zuen errepidea.

Aitor Laskurain izan zen indartsuena eta bere atzetik Urtzi Muguruza heldu zen, 7:05 denbora eginez. Jon Fernandez pasatu zen hirugarren helmugatik, 7:30 denborarekin.

BUKATU DA TXAPELKETA

Atzokoarekin aurtengo txapelketa bukatu da. 33. edizioa izan

da eta urte hauetan txirrindulari antzuolar asko aritu dira txapelketan: Karlos Baleztena, Jesus Gonzalez, Emiliano Sanchez, Gurutz Larrea...

Aurtengoan 23 parte-hartzailek jardun dute. Bost proba izan dira (bi ginkana, Iralako eta Uzarragako krono igoerak eta San Martzialeko igoera). Hauek izan dira sailkapen orokorrean kategoriako irabazleak: Xabier Iparagirre aurrebenjaminetan, Aritz Kortabarria benjaminetan, Urtzi Muguruza kimuetan eta Mikel Fernandez infantiletan. Hurrengo zita uztailaren 25ean, eguerdiko 12:00etan, izango dute Basalgoko igoeran.



Urtzi Muguruzak, bigarren egiteaz gain, kimuetan txapelketa irabazi du. Bizikleta berria estreinatuta izan da.

JON UNAMUNO

Jokin Laspiurrek, 25 urteko gazte arrasatearrak, lan kontuak tarteko sei hilabete daramatza Shanghain bizitzen. Betidanik jokatu du saskibaloian, eta

Txinara heldu zenean ez zitzaion gehiegi kostatu kirol hau praktikatzeko talde bat bilatzea. Lehenengo denboraldia da eta ligako txapelkun atera dira, gainera.

Dagoeneko erdi txinatarrak dela dioten arren, bertoko egitea oso zaila dela diosku. Hala ere, aspertzeko betarik ez du, dagoeneko lagun pila egin ditu eta bertan.

JOKIN LASPIUR | SHANGHAIKO COURT JESTERS SASKIBALOI TALDEKO JOKALARIA

"Guk baino hobeto dakite ingelesez saskibaloian dabiltzan txinatarrek"

Jokin Etxebarria

Zer egiten duzu Shanghain?

Lan kontuak direla eta, bi urtez bai Txinara bai Indiara bidaiatzen aritu eta gero, azken 6 hilabeteak Shanghain daramatza bizitzen. MCCk Shanghain duen delegazioko arduraduna izateko aukera eskaini zidan eta urte hasieratik bertan nago bizitzen.

Dagoeneko bertokoa zarela esan genezake?

Sei bat hilabete daramatza Shanghain bizitzen, baina aurreko bi urteetan hainbeste bidaiata bertara egin eta gero, dagoeneko "erdi txinatarrak" naizela ere esan genezake (Barreak).

Bertokoa? Ez da erreza guztiz bertoko egitea. Izan ere, Txina historia handiko lekua da eta bertako bizimodua, kultura eta beste hainbat aspektu zeureganatzeko denbora behar da. Hala ere, Txinan oso gustura nago. Lagun mordoa egin ditut -euskaldunak, amerikarrak, australiarak, katalanak, espainolak... eta nola ez, baita txinatarrek ere-. Beti dago zer edo zer egiteko, bai batzuekin bai besteekin, eta egia esan, oso garrantzitsua da horrelako lagunak eta bestelako aukerak edukitzea. Bestela, egun dena lanean pasatuko genuke eta lanari buruz bakarrik pentsatu. Behar bada hori da Txinak daukan problema nagusia.

Euskal Etxean ere ibiltzen zara?

Bai, han ere ibiltzen naiz. Dagoeneko zabalik dago euskal etxea eta oso txoko polita jarri

dute bertan. Oso aukera polita dela uste dut, hemengo euskaldun eta lagunak bertan elkartzeko. Nola ez, janariaren bueltan elkartzen gara, euskaldunei gustatzen zaigun moduan. Eta mus partidak ere bolo-bolo ibiltzen dira.

Nolatan otu zitzaizun saskibaloian jokatzeko hastea?

Egia esan, niri saskibaloia betidanik gustatu zait eta Arrasateko Ointxe Saskibaloia taldean -orain Mugarri Alkesa- aritu izan naiz urte askoan jokatzeko. Beraz, hona etorri eta aukera hori bilatu nuen. Behin Shanghain heldutakoan, Natxorekin, Gasteizko lagun bat, eta Chrisekin, aldameneko bulegoan lan egiten duen Amerikano-andaluz (barre) batekin elkartzeko nintzen. Beraiek talde berean jokatzeko zuten eta antolatzaile baten beharrez zuden niri esan zidaten eurekin jokatzeko.

Nola dauka taldeak izena?

Court Jesters dauka izena eta hamar bat lagun gara. Bi euskaldun, australiar bat, amerikar bat, bost txinatar eta bi amerikar txinatar gara taldean.



Sei hilabete daramatza dagoeneko Jokin Laspiurrek Shanghain.

Nola moldatzen zarete zuen artean komunikatzeko?

Saskibaloian dabiltzan txinatar gehienek guk baino hobeto egiten dute ingelesez. AEBn ikasitakoak edo han jaiotakoak dira. Baina gure taldean badaude hiru ingelesez piperrik ere ez dakitenak eta eurekin, gure erdipurdi-

ko txinatarrekin konpondu behar izaten dugu.

Jokatu duzun txapelketa irabazi duzue. Erraza izan da?

Ez, ez da erraza izan. Egia esate nahi baduzu, finalerdietarako txartela lortuko genuela nahiko argi geneukan baina gero... Finalerdietan, ligako talde one-

naren kontra jokatu genuen eta irabazi egin genien. Finalean Shanghai Sharks taldeko bigarren taldearen kontra jokatu genuen. Denak txinatarrek, altuak, gogorak eta saskibaloian urte askoan ibilitakoak. Eta hala eta guztiz ere, txapelkun! Ezin kexatuko gara.

Txapelkunaren koadroa eta bakoitzarendako kirol poltsa bat

Txapelketako finala bukatu eta gero, irabazleei opari batzuek eman zizkieten, irudian ikusi daitezkeen bezala. Jokalari bakoitzarendako kirol poltsa bat eta taldearentzako liga txapelkunaren koadroa eman zieten.

Guztia bukatutakoan, txapelketa babesten duen tabernara joan ziren talde guztiak. Bertan edari eta janaria izateaz gain, txapelketako irudi politenez gozatzeko aukera izan zuten. Laspiurrek adierazi zigunez, bi taiwandar dira Shanghain jokatzeko den liga honetaz arduratzen direnak, eta txalotzekoa izan da euren lana.

Dagoeneko oporretan daude, baina irailean berriz hasten da txapelketa, eta titulua berriz irabazteko gogoz daude.



"Txinan oso gustura nago. Lagun mordoa egin ditut eta beti dago zer edo zer egiteko"

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Jende ugari batu zen zapatuan Monterronen Arrasate Musikal Big Band taldearen saioan | 26
- Udako ordutegiarekin lan egiten hasi dira ibarreko udal liburutegiak | 27

Eduardo Arrillagaren 'Sokamuturra' erakusketa irekita gaurtik Bergaran | 27

OÑATIKO GAZTE EGUNA



AMONAL. Talde beteteranoari tokatu zitzaion jaialdia has-tea eta OGA siglak zeramatzen elastiko gorriekin egin zuten. Lagun izan zituzten Golpe de Estado taldeko bi kide.



POTEMKIN. Diskoa grabatzen hastekoak dira Potemkin-ekoak eta abesti berriren bat jo zuten jaialdian; ingelesez ere aritu ziren. Publikoa erabat animatuta ibili zen.



MALENKONIA. Doinu lasaiagoak jo zituzten Malenkoniakoek; biolinez lagunduta aritu ziren. Euren emanaldiaren ondoren, manifestazioa egin zuten gazteek.



SOSPECHOSOS. Betiko euskal taldeen bertsioak eginez osatu zuten emanaldia: Delirium, Zarama, Parabellum... Naiara izan zen emakumezko musikari bakarra.



DRAKES. Lau gazteak betiko eran aritu ziren; rock gogorra jotzen dute, herrian kontzerturik gehien ematen duen taldea da, eta maila onean jo zuten.



PUÑALADA. Kortatu taldearen *Mierda de Ciudad* abes-teaz gainera, punk bertsioak egin zituzten: Eskorbuto, Cicatriz... Espontaneoak ere igo ziren taula gainera.

GAZTE ASANBLADA | GAZTE EGUNA EGIN ZUTEN ZAPATUAN OÑATIN

Oñatiko lehenengo Gazte Eguna jendetsua eta arrakastatsua izan zen

Zapatuan egin zuten Gazte Egunean herriko hamabi taldek parte hartu zuten frontoian egindako kontzertuan. Goizaldeko 3:30ak arte iraun zuen jaialdiak. Manifestazioa ere egin zuten

Asteleheneko Goienkaria

Pozik daude Oñatiko Gazte Asanbladako kideak. Zapatuan egin zuten Gazte Eguna arrakastatsua izan zen, oso. Lehenengo aldiz antolatu dute Gazte Eguna eta egun osoan zehar, sekulako giroa jarri zuten herrian.

Goizeko txupinazoaren eta etxafuegoen ostean, triki-bertso poteoa egin zuten Oñatiko bertso eskolak eta trikitilariak lagunduta. Gosea egiteko asmoz, jolasak ere egin zituzten, zein baino zein orijinalagoa, eta frontoian 225 lagun elkartu ziren bazkaltera. Goizean goizetik giro bikaina egon zen Oñatin eta arratsaldeko musika jaialdia ere primeran ateratu zen.

PUNK, ROCK ETA HIP HOP-A

Hamabi taldek egin zuten kontzertua arratsaldean hasi eta goizeko 3:30ak arte. Horixe zen denbora muga eta bete egin zuten gazteek.

Amonal, Potemkin, Malenkonia, Sospechosos, Drakes, Puñalada, Krimen, Nadek, Show Business, Triskantza, Golde de Estado eta Kultur L.A.B. musika taldeak aritu ziren. Rat-Man disko jartzaileak ezin izan zuen saiorik egin, luze jo zuten eta aurreko guztiek. Hortaz, hamahiru barik, azkenean hamabi kontzertu egon ziren zuzenean.

Soinua ona izan zen eta giroa aparta. Lehenengo kontzertutik egon zen jendea dantzari eta kantuan. Gurasoren bat edo beste ere

animatu zen bertaratzen; Krimen taldeko baxu-jotzailearen gurasoek, esaterako, semearen kontzertua lehenengo ilaratik ikusi zuten.

Gazte eguneko bazkarira 225 gazte elkartu ziren, paella jatera

'Herri bat gaztetxe bat' aldarrikatu zuten jaialdian eta manifestazioan

Jaialdian etenaldia egin zuten gazteek manifestazioa deituta zegoelako; Oñatiko Gazte Asanbladak bere aldarrikapenak atara zituen berriz ere Oñatiko kaleetara. Kontzertuan zehar ere entzun zen aldarrikapenik: *Herri bat gaztetxe bat* eta antzeko leloak oihukatu zituzten frontoira batutako gazteek.

JAI ARRAKASTATSUA

Balorazio positiboa egin dute Oñatiko gazteek zapatuko Gazte Eguna. Gustura geratu dira antolatutako jaiak izandako harrerarekin. Lehenengo aldia izan da horrelako zerbait antolatzen dutena eta herriko gazteek ondo baino hobeto erantzun dute.

OÑATIKO GAZTE EGUNA



NADEK. Giroa bero-bero zegoen Nadek taldeko gazteak taulara igo zirenerako. La Pollaren bertsoak egin zituzten. *Herri bat gaztetxe bat* oihuak ere entzun ziren.



SHOW BUSINESS. Rock and roll sutsua egin zuten; tartean MCD, Hellacopters eta Los Padrinos taldeen bertsoak ere bai. *La Petaca* abesti propioa ere jo zuten.



TRISKANTZA. Musika aldetik talderik ahulena, baina giro onena jarri zuten. Bataz beste hamasei urte dituzte eta letra gogorak idazten dituzte; *Ñu* abestia ere jo zuten.



GOLPE DE ESTADO. Talde beterano horrek emanaldi indartsua egin zuen; euren betiko estiloan aritu ziren. Jentea kantuan jarri zuten.



KANTUKA. Gazteak izan ziren protagonistak eta ondo baino hobeto pasatu zuten herriko taldeen kontzertuekin. Kanta gehienak abestu zituzten; oihukatu zituzten. Punk eta rock doinuak izan ziren txalotuenak. Krimen eta Kultur L.A.B. taldeen argazkirik ez dugun arren, emanaldi bikaina egin zutela aitortu behar dugu.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta ORBEGOZO etxeresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteetan interes barik.

| | | | | |
|---|--|--|---|---|
|  <p>2 URTE</p> <p>1.460 X 550 X 590 mm</p> <p>B</p> <p>HOZKAILUA 2FA255 255 €42.428 pta </p> |  <p>2 URTE</p> <p>1.850 X 598 X 590 mm</p> <p>B</p> <p>HOZKAILUA COMBI 2FAC495 375 €62.394 pta </p> |  <p>2 URTE</p> <p>500/800 b/min 5 kgr.</p> <p>A</p> <p>GARBIGAILUA LA383 291 €48.418 pta </p> |  <p>2 URTE</p> <p>650/1.000 b/min 6 kgr.</p> <p>A+A</p> <p>GARBIGAILUA LA4163 345 €57.403 pta </p> |  <p>2 URTE</p> <p>1.000 b/min</p> <p>A+A</p> <p>GARBIGAILUA 4L104 294 €48.917 pta </p> |
|  <p>2 URTE</p> <p>TELEBISTA SHARP LCD, 26" LC-26GA5E 999 €166.220 pta</p> |  <p>2 URTE</p> <p>TELEBISTA PHILIPS LCD 26" 26PF-4310 999 €166.220 pta</p> |  <p>2 URTE</p> <p>LABEA eta BITROZERAMIKA H2-1401BN BITROZERAMIKA VAP1400</p> <p>B</p> <p>LABEA eta BITROZERAMIKA 298 €49.583 pta </p> |  <p>5 URTE</p> <p>AIRE EGOKITUA HOTZA ETA BEROA 48.252 pta  tik aurrera</p> <p>290 €</p> |  <p>2 URTE</p> <p>2.050 frigoria/h 20-25 m2 lokaletan erabiltzeko</p> <p>AIRE GIROTUA ADR 66 275 €45.756 pta</p> |

ETIKETA ENERGETIKOA

| | |
|-----------------------|---|
| Eraginkortasun gehien | A |
| | B |
| | C |
| | D |
| Eraginkortasun gutxi | F |
| | G |

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/udakoargazkiak




TOURRA TRAKTOREAN. K23 koadrila Tourra ikustera joan zen iaz. Ez, baina, autoz edo autobusez gehienak bezala; ez ziren, bada, traktorean joan La Mongi mendatera? /Argazkia: Ibai Zangitu /Aretxabaleta



CHICHEN ITZA. Mexikoko Chichen Itza izeneko Mayen aurri historikoan izan zen Aitor. Irudian bera agertzen da 1000 pilares deritzonean atzean duela. /Argazkia: Aitor Bañares /Eskoriatza



ILUNABARRA. 2003ko abuztuan Murtziako Manga del Mar Menor-en ateratako argazkia da. Lasai doa belauntzia itsasoan, eguzkiaren azkeneko izpiak lagun dituela. /Argazkia: Itziar Egiruren /Oñati



YEMENDARRA. Duela hiru urte atera zuen argazkia bergarar honek. Yemenen izan zen, eta argazkikoa hango gizon bat da. Urte berean Petran ere izan ziren. /Argazkia: Igor Larrañaga /Bergara

Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Debagoieneko edozeinek parte har dezake.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.

Sariak:

- **1. saria: Olympus E-300 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** bi gaueko/hiru eguneko egonaldia Kantabria edo Asturiasen Eroski Bidaiak agentziaren eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- **SARI BEREZIA:** parte hartzaile guztien artean zozketatuko den sari sorpresa.



Babeslea:



Laguntzaileak:



Uztailaren 4a: 051 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, uztailak 4, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

"LAUBURUA"

Argiaren mahai jokoa.

- Jabier Arkauz Kortabarria (Oñati)

ISTILU

etxeko kamiseta bat.

- Ander Moiuia larza (Oñati)


"IPUIN KLASIKOAK"

liburuak.

- Juan Ramon Zubia Iriarte (Eskoriatza)

Uztailaren 11ko sariak

- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).



- **ISTILU** etxeko hiru euskal txapel.



TUNISIARA BIDAIA ZORAGARRIA!

Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu irailean, **ASTELEHENKO GOIENKARIA**ren harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea:

VIAJES IBERIA



Laia Cagigal abeslaria aritu zen Bartzelonako Asstrio taldearekin batera.

AINZANE AGIRRE

Jazz emanaldi gogorrak, zabaldu du Espoloiko sorta

Groove eta funk-jazz doinuak egin zituen hirukoak. Tartean bertsio ezagunak ere entzun ziren Espoloiko emanaldian

Non. Bergarako Espoloiko kioskoan.
Zenbat jende. 100 bat lagun.
Iraupena. Ordubate pasatxo.

Asteleheneko Goienkaria

Jazz kontzertu gordin eta indartsuarekin hasi ziren ostiraletako Bergarako Jazz eta Blues gauak. Bartzelonako Asstrio hirukoak groove eta funk-jazz doinuak jo zituzten eta bat baino gehiago aho zabalik utzi zuten.

Laia Cagigal abeslariaren ahots bikaina lagun izan zuten bateria jotzaile, teklatu jotzaile eta gitarrak jotzaileek. Talde gaztea izanik, doinu fresko eta oso modernoak jo zituzten; tarteka melodia ezagunen bat ezagutzeko parada ere egon zen, Duke Ellington eta M. Jacksonen abesti bana, esaterako. Hala ere, inprobisazioa izan zen nagusi Espoloian, musikarien maila ona erakutsiz.

Ordu erdi beranduago hasi zen emanaldia, 23:00etan, eta ordubate pasatxo aritu zen laukotea. Udalak jarritako lehe-

nengo ilaretako aulkiak libratu egin ziren arren, inguruko terrazan jende talde polita batu zen emanaldia entzuten. Izan ere, jazz entzuteko ohitura ez duenarentzako estilo arrotza izan arren, Asstrio taldeko musikariek maila bikaina dutela aitortu behar da. Teklatuaren eta gitarraren soinua aldaketek emanaldiari kalitatea eman zioten.

BESTE HIRU EMANALDI

Begarako egubakoitzetako emanaldiek asteon jarraituko dute. Egubakoitzean Gonzalo Tejada Special Trio talde donostiarra arituko da. Uztailaren 15ean Madrildik etorriko den Tres Hombres taldea eta uztailaren 22an, Teresa Zabalza 5et iruñearek egingo dute saioa.



BERGARAKO ORFEOIA | EMANALDIA IKASLEEKIN BATERA

Zapatuan izan zen Mariaren Lagundiko Elizan. Bergarako Musika Eskolako kantu ikasleak entzun genituen hasieran: Nere Ibarra, Amaia Urdangarin, Jose Luis Manterola, Naroa Alberdi, Ainara Uribealzo, Aitzol Mujika, Isabel Juldain, Miren Azkarate, Argiñe Agirrezabal eta Carlos Etxaniz. Ondotik, Musika Eskolako soka taldea aritu zen: Josune Ena, Maite Alonso, Ainhoa Pagaldai eta Amaia Artzamendi, hain zuzen ere. Egitarau zabala eskaini zuten. Amaitzeko, Bergarako Orfeoiarekin batera Albinoniren *Magnificat* eskaini zuten | L.Z.



ROCK KONTZERTUA | BERGARAKO GAZTETXEAN

Musika izan da protagonista asteburu honetan Bergarako gaztetxean. Kontzertuak egin dituzte bertan bai bariku gauean bai zapatuan. Rock and roll doinuak izan ziren nagusi, batez ere zapatuan. Cleopatra Jones, Los Frenos eta Los Paniks taldeak aritu ziren Bergaran. Talde bakoitzak bere lana aurkeztu zuen gaztetxean. Los Paniks hirukotearen rock gordinak inpresio ona utzi zuen. Barakaldoko taldeak urteak daramatza musika zirkuituetan eta ez zien gaztetxera bertaratutakoei huts egin. | A.G.



ARRASTE MUSIKAL BIG BAND TALDEA | MONTEIRONEN IZAN ZIREN ZAPATUAN

Gustura geratu ziren entzuleak Arrasate Musikal Big Band taldeak zapatu gauean Monterron parkean egingako emanaldiarekin. Taldearen izen bera daraman diskoko doinuak jo zituzten batik bat, baina baita hiru berri ere. Ordu eta erdiko emanaldia egin zuten

–bi bisak kontuan hartuta– eta Amaia Arriaranek ahotsa jarri zuen kantu bakoitzeko hunkitu egin zen bat baino gehiago. Zigor Martinez bergararrak zuzentzen duen taldea ondo aritu zen zapatuan. Hobeto, baina, Espaloian diskoa grabatu zutenean. | A.G.

Masterreka 4 behea - BERGARA
Tel.: 943 76 18 93

Neurrira ebakitako tableroak

- Apalak eta kajoiak
- Zokaloak
- Manilak
- Moldurak eta sarrailak
- Egurrezko objetuen pintaketa

Eduardo Arrillagaren 'Sokamuturra' erakusketa zabaldu dute Bergaran

Erakusketaz beraz gain, beste ekintza batzuk izango dira: DJ baten emanaldia eta sokamuturraren gaineko hitzaldia

E. Mendibil/L. Kortabarria

Erakusketa berria dago Bergarako Aroztegi aretoan joan den egubakoitzaz geroztik: Eduardo Arrillaga (Elgoibar, 1966) argazkilariaren *Sokamuturra* argazki bilduma. Erakusketa horren harira, ekintza gehiago ere antolatu dira hemendik eta bukatu arte, hilaren 24an.

Erakusketa bera zuri-beltezko 34 argazkik osatzen dute, izenburuak esaten duen moduan, sokamuturraren ingurukoak. Arrillagak hamar bat urtez jardun zuen sokamuturreko argazkiak ateratzen, gehienetan txekorretatik oso gertu. Hala, indar handiko

argazkiak dira. 1992-2001 urteen bitarteko lanak dira. Beroiek ikusteko aukera dago astegunetan eta domekatan, 18:30-20:30 orduetara; eta zapatutan, 12:00-14:00 eta 18:30-20:30.

Eduardo Arrillaga argazkilariak ibilbide oparoa du. 1990. urteaz geroztik, erakusketak egin, sariak irabazi eta bere lana hainbat komunikabidetan plazaratu du. Besteak beste, iaz Espainiako Argazkilaritza Herrikoien lehiaketan bigarren saria irabazi zuen.

DISKO JARTZAILE BAT

Erakusketaren barne, beste bi ekintza antolatu ditu Bergarako Udalak. Hala, datorren zapatuan, hilaren 9an, DJ Ene! disko jartzaileak emanaldia egingo du Aroztegin 19:00etatik 22:00etara. Udaleko Kultura arduradunek ekintza berri-tzaile bat egin nahi zuten, eta jendearen erantzuna ona izango dela espero dute. Bukatzeko, hilaren 15ean, egubakoitza, Iñaki Azkunek *Sokamuturra* izeneko hitzaldia egingo du 20:00etan, Juan Luis Bikuñak aurkeztuta.

Labur

Bi asteko txalaparta ikastaroa izango da Bergaran, hilaren 11n hasita

Txalaparta ikastaroa antolatu du Bergaran Jardun elkarteak, eta izena emateko aukera dago eguena arte, hilak 7, Jardunen bulegoan. Berritasuna da, aurreko urteetan ez bezala, ikastaroa bi astekoa izango dela –uztailaren 11tik 21era bitartean–, aste bakarrekoa laburregia zela, ikasleentz esanetan. Eskolak astelehenetik eguenera izango dira, Arrizuriaga jauregian, 19:00etatik 20:30era arte. Gorka Zubizarreta arrasatearrak emango du ikastaroa. Matrikula da 20 euro, 15 bazkide edo langabeendako.

Yera Sanchez aretxabaletarrak saria irabazi du Sexmetraia lehiaketan

Arrasateko Sexologia Zerbitzuak antolatutako Sexmetraia film laburren lehiaketako debagoien-dar saridun bakarra Yera Sanchez 23 urteko aretxabaletarra izan da. *Marra urdinen bitartez...* filmarekin, Sexologia Euskaraz saria irabazi du: 300 euro.



Udako ordutegian lan egiten hasi dira ibarreko udal liburutegiak

Herri gehienetako udal liburutegiak hasi dira uztaileko ordutegian irekitzen: Aretxabaletan, astelehen, eguazten eta egubakoitzetan, 10:00-13:00, eta martitzen eta eguazten, horrez gain, 17:00-20:00; Bergaran, 09:00-21:00, astelehen eta eguazten izan ezik: egun horietan, 08:00-13:30; Oñatin, 10:00-13:00 eta 17:00-20:00, astegunetan; eta Eskoriatzan, 10:30-13:00 eta 16:30-20:00, astegunetan. Armaion, hilaren 5etik 18ra, 17:00-19:30; eta Arrasaten, uztailaren 18tik aurrera, 10:00-13:00 eta 16:00-20:30, astegunetan.

Hitzorduk



CAPOEIRA IKASTAROAK HASIKO DIRA ARETXABALETAN ETA ARRASATEN | Igor Ezpeleta eskoriatzarrak emango ditu eskolak, uztailaren 20ra arte

Capoeira ikastaro bi hasiko dira egunotan ibarrean. Hala, gaur, astelehena, Aretxabaletako Gazte Ekimenak antolatutakoa hasiko da. Udaletxe zaharrean izango dira eskolak astelehen eta eguaztenetan, 17:00etatik 19:00etara, uztailaren 20ra arte. Izenematea, Ezkutu tabernan, 3 euro da. Leku

eta prezio berean, malabare ikastaroan izena emateko aukera ere badago, hori uztail bukaerarako.

Bigarren capoeira ikastaroa Arrasaten hasiko da bihar, martitzena, Udal Gazte Sailak antolatuta. Monrerronen izango da, 19:00-21:00. Izenematea zabalik dago 943 77 00 65 telefonoan.

ZINEMA |

• **XXX 2 - Estado de emergencia** filma Oñatin Kultura etxean emango dute film hori gaur, astelehena, 19:30ean. Ikuslearen eguna denez, 3 euro da sarrera.

• **Zinema emanaldia egingo dute etzi, eguaztena, Elgetan** Eguazteneko bezala, film bat emango dute etzi Elgetako Espaloia antzokian, 21:30ean. Uztailean zinema emanaldi zikloarekin jarraituko dute.

ERAKUSKETAK |

• **Arrasateko zeramika ikasleentz erakusketa** Loixe zeramika eskolak erakusketa zabaldu du Monrerronen. Uztailaren 15era arte egongo da zabalik, astegunetan, 18:00-20:00 orduetara.

DEIAK |

• **Biblioporrak udako gida udal liburutegietan dago**

Liburu eta ikus-entzunezkoen 60 gomendiotik gora batzen ditu esku-orri horrek. Bost adin multzo bereizten dituzte, eta guztiendako liburuak eta ikus-entzunezkoak daude aholkatuta. Ibarreko liburutegi guztietan eskura dezakezue.

• **V. Juan San Martin ikerketa-beka deitu dute**

Eibarko Udalak egiten du deialdia, zuzenbide eta filosofia arloko euskarazko ikerketak bul-

tzatzeko, eta 9.000 euroko beka da. Argibideak, Eibarko Herri-tarren Zerbitzurako Bulegoan (Untzaga plaza, 1).

• **VI. Jose Antonio Loidi ikerketa-bekako deialdia**

Antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanikan euskarazko proiektuak egiteko 9.000 euroko beka emango du Irungo udalak. Argibideak, 943 64 92 50 telefonoan.

LEHIAKETAK |

• **Goienaren argazki lehiaketako oinarriak**

Goienaren argazki lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago. Udako argazkiak bidali behar dira argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitza batera. Argazki kamera digitala, bi lagunendako asteburuko egonaldia Asturiasen edo Kantabrian, eta afari edo bazkari bat emango dituzte sari bezala.

• **San Miguel jaietako programaren azala**

Oñatin jaio edo han bizi direnei dago zuzenduta lehiaketa. Teknika librea da, eta derri-gorreko testua, hauxe: *Oñatiko jaixak 2005*. Lanak turismo bulegoan edo kultura etxean entregatu behar dira uztailaren 15a baino lehen. Irabazleari 250 euro emango diote, eta bigarrenari, 125.

• **CAF-Elhuyar sariak, dibulgazioa sustatzeko**

12. CAF-Elhuyar sariak deitu dituzte, zientzia-dibulgazioko artikuluetarako eta dibulgazio-liburu bat idazteko. Lehenengo sailean, 2.100 euro banatuko dira lau saritan; bigarrenean, liburua idazteko proiektu onenak 4.500 euroko beka jasoko du. Sarietako oinarri osoak www.elhuyar.org eta www.zientzia.net webguneetan daude. Mugaeguna da abenduaren 1a.

IKASTAROAK |

• **Oñatiko KZGunean, hainbat ikastaro daude aukeran**

Hainbat ikastaro emango dituzte egunotan KZGunean: Internet ikastaroa eta *Foroak eta FAQ* (gaur, astelehena), *Iberdrola mikologia* (bihar, martitzena) eta e-finantzen gainekoa (hilak 6 eta 7). KZGune-ko uztaileko ordutegia da 09:00-13:00 eta 14:00-18:00.

ANTZERKIA |

• **Ezetz lepoa jarri ikusteko sarrerak salgai daude**

Ezetz lepoa jarri ikusteko sarrerak salgai daude Oñatiko kultura etxean 7 eurotan. Emanaldia hilaren 8an izango da Santa Ana aretoan, 22:30ean; egunean bertan erositako txartelak 8 euro kostatuko dira.

Zorion agurrak



ARRASATE
Asier Leturiaga
Ekainaren 29an 24 urte. Urte askotarako! Lagunak eta nobixak.



ARRASATE
Andoni Abaunza
Uztailaren 4an 8 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE
Garazi Etxabe
Uztailaren 4an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak eta Liher.



ARRASATE
Oxel Urtzelai
Uztailaren 7an, urteak. Zorionak eta urte askotarako! Koadrilakoak.



ARRASATE
Jokin Etxebarria
Uztailaren 9an, urtebetetzea. Zorionak! Goienako lankideak.



BERGARA
Jone Mugika
Uztailaren 5ean, 4 urte. Zorionak! Etxekoak, bereziki Maitane.



BERGARA
Jone Arrieta
Uztailaren 7an, urtebete zarataka. Zorionak! Etxekoak.



BERGARA
Jurgi Zuazo
Uztailaren 7an, 11 urte. Zorionak! Maite zaitugunok.



BERGARA
Haritz Gomez de Balujera
Uztailaren 8an, 2 urte. Zorionak! Etxekoak.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIA**k egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali esleria:
irratia@goiena.com
helbidera edo deitu
943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tarte
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7



Jaiotakoak



Pello Gallastegi Lete
Bergara • 3,570 Kg.
Ekainak 16. Gurasoak: Eider eta Iñigo (Bergara). Argazkian: Pello esnatu berri.



Illare Sanchez Lasa
Arrasate • 3,335 Kg.
Ekainak 25. Gurasoak: Iñaki (Arrasate) eta Maren (Azpeitia). Argazkian: Illare bapo lo.



Maren Vazquez Etxebarria
Arrasate • 3,010 Kg.
Ekainak 25. Gurasoak: Iñaki eta Gentzane (Arrasate). Argazkian: Maren bapo lo.



Maren Lezeta Iturbe
Aretxabaleta • 3,195 Kg. Ekainak 28. Gurasoak: Iraide (Aretxabaleta) eta Angel (Eskoriatza). Argazkian: Maren amaren besoetan lo.



Eider Sandonal Guerra
Arrasate • 3,290 Kg. Ekainak 29. Gurasoak: Javi (Aretxabaleta) eta Isabel (Arrasate). Argazkian: Eider amaren besoetan.



Jurgi Etxebeste Bolinaga
Oñati • 3,500 Kg. Ekainak 30. Gurasoak: Unai (Arrasate) eta Izaskun (Oñati). Argazkian: Jurgi amaren besoetan.



Danel Iturbe Cubillo
Arrasate • 3,870 Kg.
Uztailak 1. Gurasoak: Mikel eta Cristina (Arrasate). Argazkian: Danel bapo lo.



Urko Taracido Zurutuza
Arrasate • 4,960 Kg.
Uztailak 1. Gurasoak: Koldo eta Rakel (Arrasate). Argazkian: Urko bapo lo.



Ibai Segovia Aramendia
Arrasate • 2,755 Kg.
Uztailak 2. Gurasoak: Sebas eta Silvia (Arrasate). Argazkian: Ibai bapo lo.

Hildakoak


Jose Antonio Madina Alzola
Oñatin, ekainaren 20an. 60 urte.

Jose Antonio Gutierrez Igartua
Bergaran, uztailaren 2an. 60 urte.



ESKELAK
ASTELEHENKO
GOIENKARIAN

82 euro
943 76 92 71



**merkealdiak
merkealdiak**

www.forumspor.com

SPORTLAND
FORUM SHOPS

**SPORTLAND ARRASATE,
Garibai Etorbidea, 2-6,**

KIROLA ZEURE ESKURA



Hamarrekoa

MAIXA LIZARRIBAR | MUSIKARIA

“Ni Ixiarrekin lotzen naute oraindik, eta Ixiarri Maixa deitu zioten bere ezkontzan”

Oihana Elortza

1. Zertan jolasten zineten Altzon umetan? *Azuketan.*

Elizaren portikoan jolasten ginen. Pareta bat dago, eta klarionarekin lauki bat marrazten genuen. Bi kanpoan gelditzen ziren eta beste guztiak barruan. Kanpokoak eta barrukoak elkar ukitu behar zuten. Elkar harrapatzen ere ibiltzen ginen, elizaren bueltan korrika.

2. Altzoko erraldoiak azkar harrapatuko zintuzten.

Makina bat istorio entzun ditugu haren inguruan. Benetan zen handia. Udaletxean bere tamainara egindako eskularruak, abarkak eta trajeak daude, eta izugarri handiak ikusten dira. 42 zentimetro neuruzten zuten haren oinak.

3. Zenbat ikasle dituzu trikitia ikasten Arrasaten?

80 inguru izan ditugu ikasturte honetan. Gehiago ere izan ditugu, boladak egoten dira.

4. Zenbat kilometro egiten dituzu autoan astean?

1.000 kilometro astean. Altzon, Gasteizen eta Arrasaten ematen ditut trikiti eskolak, eta egunero nabil hara eta hona.

5. Garajeko mekanikoak ere lagunak izango dituzuhonezkerok. Pentsa, lo aurpegia noiz dudan ere antzematen didate.

6. Utzi zizun arrastorik Etxegaraten izandako istripuak? Duela zazpi urte izan nuen istripua. Ahaztu egin gura dut, baina oraindik goizetan buruko minarekin jaikitzen naiz batzuetan eta istripuaz gogoratzen naiz orduan.

7. Tripako minik ematen dizu oraindik Ixiarrekin lotzeak? Bai, zera! Alderantziz ere gertatzen da. Joan den astean ezkondu egin zen Ixiar, eta Maixa deitu zioten.

8. Egiten duzu dantza erromerietan? Ez lehen beste, baina bai. Txikitari gau guztia pasatzen nuen arinarina eta fandangoa dantzatzen herriko plazan. Orain, izugarriko tristura ematen dit plaza hain hutsik ikusteak.

9. Askotan joaten zara ile apaindegira? Ez, hiru hilabete behin edo. Hala ere, aldaketa asko egin ditut: txikia nintzenez, motz-motz nuen; Ixiarrekin batera pasa

10. Kakorraz-lanak egiten pasako duzuda? Bero egiten du



OIHANA ELORTZA

34 urte ditu Maixa Lizarribarrek. Jaioterrian bizi da egun, Altzon, baina Gasteizen bizi izan zen zazpi urtez eta han *deskubritu* zuen jazz. Ohetik jaikitzea oheratzea baino gehiago kostatzen zaio. Eskiatzen ikasi zuenetik motzagoak egiten zaizkio neguak, baina uda da bere urtarorik goxokoena. Liburuarekin eta irratiarekin joaten da beti hondartzara eguzkia hartzera.

ditudan 11 urteetan, luze; banatu ginenean moztu egin nuen eta orain luzea dut berriro.

10. Kakorraz-lanak egiten pasako duzuda? Bero egiten du

udan, eta nahiago dut neguan egitea kakorrazta. Izugarri gustatzen zait, eta bufanda, txapel eta gona asko egin ditut. Balde zaharrak margotzen eta apurtutako azulejoekin mahaia egiten ere ibiltzen naiz.



Biharamuna

Edu Mendibil

Allez, allez!!!

Nafarroako Miguel I.a erretiratu zenetik ez dut ziklismoa askorik jarraitu. Indurainen urrezko aroari dopinaren aro beltzak jarraitu zion. Hainbat txapeldun geratu dira bidean, **Pantani** eta **Jimenez** eskalataile paregabeak tartean. Ematen du tunel beltz eta luze batek irtetzen ari dela tropela.

Tourra iristean gustura irakurtzen ditut lasterketaren inguruko gorabeherak eta faboritoen gaineko erreportajeak. Edozein tabernatan ere aurki daiteke adituen bat, batzuen eta beste inarrak ondo neurtzen dakitenak, **Benito Urraburuk** edo **Xabier Usabiagak** beste informazio dabiltenak. *Le tour c'est le tour* diote frantsesek. Eta egia da: txirrindulari eta zale guztiendako lasterketa berezia da, ez dago haren parekorik. Zapatutik telebista aurrean egotea tokatzen da bazkalostean, Tourmaletoko aldapetan bagina.

Oporren usaina ekartzen dit Frantziako lasterketak eta gainera Tourrari zor diot frantsezko lehen hitzak ikasi izana: *tête de la course, maillot jaune, poursuivants, col, arrivée, champagne, mademoiselle, affaire...* Ez dakit, azken hauek beharbada ez nituen Tourrari esker ikasiko. Bueno, kontuak kontu, uztailaren 24ra arte **Armstrong** eta gainerako menpe egongo gara.

Bien bitartean, gaur biharamuna tokatzen da Bergaran, atzoko **San Martzialgo erromeriaren** ostean. Esaera zaharrak dioen moduan, “San Pedroz kuku, San Martzialez mutu”. *Allez, allez!!!*



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

UGARTE

AROTZEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak



ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

